

# Eskolako jasangarritasunerantz

Jasangarritasuneko hezkuntzarako  
kalitate irizpideak

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

INGURUMEN, LURRALDE  
PLANGINTZA, NEKAZARITZA  
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,  
AGRICULTURA Y PESCA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN 978-84-457-2917-5



9 788445 729175

Salneurria: 6 €

# Eskolako jasangarritasunerantz

Jasangarritasuneko hezkuntzarako  
kalitate irizpideak

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

INGURUMEN, LURRALDE  
PLANGINTZA, NEKAZARITZA  
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,  
AGRICULTURA Y PESCA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

ARGITARALDIA:	1.a, 2009ko azaroa
ALE-KOPURUA:	2.000 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila
ARGITARATZAILEA:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
INTERNET:	<a href="http://www.euskadi.net">www.euskadi.net</a>
EGILEAK:	Jose Ignacio de Guzmán Alonso eta Jose Manuel Gutiérrez Bastida
ARGAZKIAK:	Ingurugelako artxiboa
DISEINU GRAFIKOA:	Ingurubegi SL
INPRIMAKETA:	Estudios Gráficos ZURE, S.A.
ISBN:	978-84-457-2917-5
LEGE-GORDAILUA:	BI-3082-09



*Isabel Celaá*

Hezkuntza, Unibertsitate  
eta Ikerketako sailburua



*Pilar Unzu*

Ingurumen, Lurralde Plangintza,  
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua

**E**uskal Autonomia Erkidegoko ingurumen hezkuntzaren une garrantzitsuaren aurrean gaude, bertan batzen baitira jasagarritasunaren bilaketa, parte hartze demokratikoaren sakontzea eta EAEko ikastetxeetako hezkuntza kalitatearen hobekuntza.

EAEko hezkuntza-sisteman ingurumen hezkuntzak tradizio luze eta emankorra dauka. Ingurumenaren inguruko hasierako hezkuntza berriatzeko lehenengo proiektuetatik hasi eta Eskolako Agenda 21 programan parte hartze sendo eta irmoetara heldu gara. Eusko Jaurlaritzak gogoz bultzatu eta lagundu ditu prozesu horiek ondokoan bidez: diru laguntzak, irakasleen prestakuntzaren konpromisoa, ingurumenaren aldeko sentsibilizazioa, ingurumen hezkuntza arloko ikerketa eta eduki curricularren lanketa. Azpimarratzekoa da Agenda 21 izenekoaren garapena, hori Rio de Janeiron 1992an izandako Lurraren Goi-bileran sortu zen eta Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 delakoen sustapena ekarri du.

Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko ia 500 ikastetxek eta 200.000 ikaslek parte hartzen dute Eskolako Agenda 21 programan 18.000 irakaslek lagunduta; ikastetxeen ingurumena eta heziketa hobetzen, eta, dagozkien udalerrietako (129) jasagarritasunean parte hartzen. Eskolako Agenda 21en ibilbidean zehar egin diren hainbat ebaluaziok

adierazi dute, besteak beste, programaren garapeneko kalitateagatik nabarmentzen ziren ikastetxeen ahalegina errekonozitu behar dela. Hori dela-eta, sortu da “Eskola jasangarritasunerantz” aintzatespena. Lerro hauek idazteko mementoan ekimen horrek bigarren edizioa izan du eta ikastetxeek egiten duten lanaren errekonozimenduak behar duen ikuspen-publikoa emateko sortu da.

Argitalpen honetan aurkezten dugun hausnarketa da errekonozimendua emateko egiten den ebaluazioaren oinarria. Alde batetik, Estatuko nahiz nazioarteko prestigio handiko erreferentziak; eta bestetik, Ingurugelaren eskarmentua kontuan izanda Eskolako Agenda 21en inguruan hezkuntza-esperientzien kalitatearen ebaluazio-sistema bat ezarri da; hori guztia ikastetxearen jasangarritasuna, parte hartze demokratikoa eta curriculumaren berrikuntza hobetzen dutenak positiboki bereizteko. Jadanik 40 dira aintzatespena jaso duten ikastetxeak.

Espero dugu lan hau, ingurumen hezkuntzari eranstean zaion abstrakzio gisa, jasangarritasunerantz doazen hezkuntza-komunitateek egin behar dituzten ahaleginen helmuga izatea.

# AURKIBIDEA

<b>Sarrera</b> .....	9
<b>1. Kalitatea jasangarritasuneko hezkuntzan</b> .....	11
Ingurumen hezkuntza: definizioa eta historia laburra .....	11
Ingurumen hezkuntza Euskal Autonomia Erkidegoan .....	15
Kalitatea ingurumen hezkuntzan .....	18
<b>2. Testuingurua: Eskolako Agenda 21</b> .....	21
Aurrekariak eta Eskolako Agenda 21 .....	21
Helburuak eta konpromisoak .....	22
<b>3. Ebaluaketa sistema: zergatia eta helburuak</b> .....	31
<b>4. Ebaluaketa sistema: edukiak eta prozedura</b> .....	35
Adierazleen sistema .....	35
Helburuak .....	36
Adierazleak eta azpi-adierazleak .....	36
Kalitate irizpideak .....	39
Auto-ebaluazioa eta auto-erregulazioa .....	41
Auditoria .....	42
Lehenbiziko "Eskolak jasangarritasunerantz" .....	42
<b>5. Ebaluaketa sistema: kalitate irizpideak</b> .....	45
1. Jasangarritasuna .....	45
2. Konplexutasuna .....	50
3. Prozesua .....	53
4. Parte hartzea .....	57
5. Elkarlana .....	61
6. Curriculuma .....	65

## ERANSKINA

### "Eskola jasangarritasunerantz"

#### aintzatespenaren deialdian zabaldutako

informazioak eta iradokizunak ..... 69

Aurkibidea ..... 71

1. Gonbidapena ..... 73

2. Ekimen honen helburua ..... 75

3. Kontuan hartzeko alorrak ..... 77

4. Adibideak ..... 81

1. adibidea ..... 81

2. adibidea ..... 83

3. adibidea ..... 84

5. Eskaera-eredua ..... 85

Bibliografia ..... 89

Akronimoak ..... 93



## SARRERA

Jasangarritasunerantz bideratutako hezkuntza da, ingurumen hezkuntza- gaur egungo adierazpide nagusia, gaurko eta biharko ingurumen arazoak konpontzeko hainbat urteren buruan aldaketa soziala eta herritar gaituak lortzen saiatu ondoren. Aspaldi da, hezkuntza aldaketa horretan, beharrezko tresnatzat jo dela, baina baita ere, egia da bera bakarrik ez dela nahikoa. Ingurumen hezkuntzaren garapenak ez du ingurumena hobeto zaintzean edo sistema ekonomiko edo sozial bidezkoago baterako transformazio paralelorik eragin.

Jasangarritasunaren ideiak, eskuzabaltasunez gizarteko sektore askok erraz onartzen dutena, ez du izan beharrezkoa den eztabaidarik, handik modelo edo kultura jasangarriak sortzeko eta, ideia partzialak eta sektorialak proposatzen diren arren, estandarra falta da. Ingurumen hezkuntza integratu da tresna gisa, hala edo hola, unibertsitateaz kanpoko heziketan, baina apenas unibertsitatean, eta anekdota hutsa da gizarte sistemako gainerako egituretan. Bide horretan, ez dugu asmatu eragiten instituzioetan, politikan, ekonomian, gizartean edo kulturean; eta esparru horiek, teknologia, merkatu eta lurralde antolakuntzaren aldaketen liluran oinarritu dira.

Eskolak funtsezko papera du ingurumen hezkuntzaren garapenean. Eszenategi tradizionalarekin alderatuta, gaur eskolak eskaintzen du aldaketa eredu bat ingurumen hezkuntzan: ingurua ikastetik, inguruan bertan, inguruaren aldeko ikasketetara, programa konplexuetara, non parte hartzen duten ikastetxeko komunitateak, tokiko gizarteak eta haren kudeatzaileek eta erakunde politikoek.


Bide horretan, ingurumen hezkuntza formalak zenbait emaitza lortu ditu, proposamen, proiektu eta programa askoren bitartez. Mutur batean, heziketarako alferrekoa den aktibismoan erori diren esperientziak ditugu (egiteagatik egin, zentzun edo helbururik gabe, hausnarketarik gabe...). Bestetik, ingurumen arazo gertukoak (baina globalak) tratatzen dituzten praktikak ditugu, ireki eta konplexuak, ikasleen ezagutzatik abiatzen direnak, banakako eta giza ezagupen eraikuntza bultzatzen dituztenak, ekimenerako lekua eta denbora uzten dituztenak, konpetentziak –herritar gisakoak, bereziki–, eskuratzea helburu izanik, hezkuntzaren berriztatzea eta partaide-tza aktibo eta demokratikoa dakartenak.

Horietan guztietan, esperientziak ebaluatu behar dira: zein ezaugarri dituzten, modus operandi-ak, jardunbide egokiak, horiek positiboki diskriminatzeko. Kalitate irizpideetan oinarritutako ebaluaketa behar dugu, egunerokoan kalitatea ziurtatuko duten ikastetxeak izan daitezen emaitza, era berean bide beretik doazen beste ikastetxe batzuentzat erreferentzia izateko.

Honako proposamen hau egiteko erabili dugun iturri nagusia SEED (*School Development through environmental education–Ingurumen Hezkuntzaren bidezko Eskola Garapena*) sareen kalitate irizpideak izan dira. SEED Comenius III eta ENSI (*Environmental and School initiatives–Ingurumen eta Eskolen Ekinbideak*), ekimenen parte da, eta hainbat eskolak garatutako lanen txostenetatik atera dituzten irizpideak lan honetan daude bildurik: *Quality Criteria for ESD–Schools. SEED–School Development through environmental education*; Soren Breiting, Michela Mayer eta Finn Mogenssen; 2005.

Hemen aurkezten dugun dokumentuak Euskal Autonomia Erkidegoak 2007–2008 ikasturtean martxan jarritako kalitate irizpideetan oinarritutako ebaluaketa sistema aurkezten du. Ebaluaketa horren bidez, “Eskola jasangarria” aitortza–agiria eskaintzen zaie ikastetxeei. Irizpideok, halaber, agiria lortu ez dutenentzat edo jasangarritasunerako bidean daudenentzat erreferentzia eta gida izan daitezke.

## Kalitatea jasagarritasuneko hezkuntzan



2. Testuingurua: Eskolako Agenda 21
3. Ebaluaketa sistema: zergatia eta helburuak
4. Ebaluaketa sistema: edukiak eta prozedura
5. Ebaluaketa sistema: kalitate irizpideak

## Ingurumen hezkuntza: definizioa eta historia laburra

1960ko hamarkadan, ingurumen krisi globalak piztutako kezkatik jaiotzen zen ingurumen hezkuntza. Giza Inguruneari Buruzko Nazio Batuen Batzarrean (Estokolmo, 1972), hain zuzen, egin zen krisiari buruzko lehen mundu bilkura handia, eta bertan ezarri zen printzipio hau: "Ezinbestekoa da ingurumenaren inguruan hezteko, ardua zentzua garatzeko, eta ingurumena, globalki harturik, hobetzeko". Printzipio horretan oinarritu zen ingurumen hezkuntzaren lehen definizio ohikoena. Hainbat giza-taldek (naturalistak, ekologistak, biologoak...) munduko ingurumenaren hondatzeaz zuten kontzientziaren isla izan zen printzipio hura.

Ingurumen hezkuntza jarduera, esperientzia eta programen bidez joan zen hazten, esparru formal zein ez formalean; jomuga izanik jendearen jarrera eta ohiturak aldatzea, erdietsi nahi den aldaketa sozialerako bidean. Eskolako lehen ahaleginek, oro har, ikuspegi fisiko-biologiko eta informatiboa zuten. Ikasgai bihurtu zen natura, azterketa, analisi eta bildumatzeen bidez (denak, hori bai, norabide jakin batean oso zuzenduak). Ikasgela ingurura joan zen, modu deskribatzaile, naturalista eta kontserbazionista batetik informatzeko ikasleei.

1980ko hamarkadan, zentzu eta helburuak argitu egin ziren, Belgrad-eko (Serbia) biltzarrean, zeinean "pertsona eta giza taldeei lagundu..." helburu ezagunak ezarri ziren:

1. **Kontzientzia hartu.** Pertsona eta giza-taldeei lagundu, sentsibilizazio eta kontzientzia handiagoa har dezaten ingurumenaz eta bere arazoez.

- 2. Ezagutzak.** Pertsona eta giza-taldeei lagundu, oinarrizko ulermena lor dezaten ingurumenaz bere osotasunean, elkarri lotutako arazoez, eta gizateriak ingurumenean duen toki eta funtzioaz, horrek dakarren ardura kritikoarekin.
- 3. Jarrerak.** Pertsona eta giza-taldeei lagundu, balore sozialak eta interes sakona irabaz ditzaten ingurugiroan, horrek haren babes eta hobekuntzara bultzatzeko.
- 4. Trebetasunak.** Pertsona eta giza-taldeei lagundu, ingurumen arazoak konpontzeko behar diren beharrezko trebetasunak eskuratzeko.
- 5. Ebaluatzeko gaitasuna.** Pertsona eta giza-taldeei lagundu, gai izan daitezzen ingurumen hezkuntzako neurri eta programak ebaluatzeko, ekologia, politika, gizartea, estetika eta hezkuntza faktoreak kontuan harturik.
- 6. Partaidetza.** Pertsona eta giza-taldeei lagundu, ardura zentzua garatzen, ingurumen arazoei aurre egiteko premia larriaz jabetzen, horri egiteko neurri egokiak hartzen direla ziurtatzeko.

Bi urteren buruan, Tbilisin (Georgia), irizpide gehigarriak ezarri ziren; adibidez, ingurumen hezkuntza ez dagokiola bakarrik esparru formalari, baita ez-formalari eta informalari ere (hedabideak, herri-aginteak, kudeaketa...); eta pertsona prestatu behar duela, munduko arazo nagusiak uler ditzan, ezagutza tekniko eta jarrera egokiekin, funtzio produktiboa garatzeko bizimodua hobetzen eta ingurumena babesten, balore etikoei zor zaien arretarekin. Horrezkero, ingurumen hezkuntza ez da ikasleen portaeran zentratuko, eta beren kompetentziak sustatzen saiatuko da, gaurko eta biharko ingurumen arazoen konponketa bidean ekintzak planifikatu eta ekiteko gauza izan daitezen.

Era horretan, eskolan jarduteko gune berriak irekiko dira, hala nola ibilaldi ekologikoak, baserri-eskoletan egonaldiak, sentsibilizazio kanpainak —egungo ingurumen arazo zehatzei buruz—, ingurua babesteko jarduerak (ibai, kostalde eta basoen garbiketa, adibidez), zuhaitz landaketa, eskolako baratza, kontsumo-tailerrak... Ikuspegi berri horretan ikasleek protagonismo handiagoa dute, ikaskuntza aktiboa eskaintzen zaielako, ingurua ikertzea eta metodoetan efikazia ere lortu zen, iraganketaren proposamen eta hezkuntza estrategia interesgarriak (Decroly, Dewey, Freinet...) berreskuratzen baitziren, ikusmolde asoziazionista eta konduktisten arrakastagatik bigarren mailan geratutakoak. Eszenatoki hau izan zen 1980ko eta 1990eko hamarkadetako ohikoena ingurumen hezkuntzan, eta arriskua zekarren berekin, kasu eta egoera zehatz askotan egiazko bihurtu zena: aktibismoa. Hau da, ekin ekiteagatik, hausnarketa gutxi edo batere egin gabe.

1990eko hamarkadan, batetik, ingurumen hezkuntzak jasangarritasun kontzeptuarekin bat egin zuen, 1992ko *Rioko Goi-gailurraren* ondorioz. Bestetik, erreferentzia epistemologikoak ugaldtu ziren, eta herrialde askotan hezkuntza programetan agertzen hasi zen. Hezkuntzako ikuspegi konstruktibista ere indartzen joan zen era berean, eta horrek ekarri zuen irakaskuntzan baino ikasketan gehiago eragitea, ikaslea prozesuaren erdigunean jartzea, bere aurretiazko ideietatik abiatzea, garapen hurbileko gunera hurreratzeko, ikasleak bere inguru gertukoenean eraiki dezan bere ezagutza pertsonal eta soziala... Marko berri honetan, jasangarritasunerako ingurumen hezkuntzak kausa eta efektuak ulertzera jo zuen, konplexutasuna bizitzera, etika esploratzera, partaidetza zuzenera, ekintza errealerara, sistema-ikuspegiak sustatzera eta ingurumenari buruzko ezagutza eraikitzen.

Ingurumen hezkuntzak dimentsio berriak irabazi zituen horrela; jokabide aldaketaren baina gehiago, pentsamolde aldaketaren kultura sustatuz; hobekuntza sozialak baino gehiago, aldaketa soziala.

Gaur egunean, ingurumen hezkuntza bidegurutze zail batean dago: gizarte ez-jasangarri batean egin behar du lan jasangarritasunaren alde, gizarteak ez baitio arretarik eskaini giza ekintzak planetan eta biosferako bizitzan eragiten dituen ondorioei. Gizarteak jasangarritasunaren alde egin nahi duela dio, baina ez du gizarte-jokabide egoki bat gaurko eta etorkizuneko ingurumenari begira, ez du balore sistema adostu bat, ezta mundua ulertzeko irizpide bateraturik ere. Jasangarritasunaren kontzeptu bera ere eztabaida eta aldaketa etengabe dago.

Horren adibide dugu, 2000ko Compostelako Santiagoko *Ingurumen Hezkuntzako Adituen Nazioarteko Elkarketaren* azken ondorio hau: "Jasangarritasun kontzeptua, ingurumen hezkuntzaren ezinbesteko erreferentzia gisa, etengabe berrikusi behar da era kritikoan, helburu bikoitzarekin: ez daitezten haren atzean ikuspegi desarrollista eta ez-solidarioak ezkutatu, eta ez dakion ingurumena eta hezkuntza batzen dituen edozein ekimeni besterik gabe aplikatu (UNESCO, Santiago de Compostela, 2000)".

Urteak dira ingurumen hezkuntza ez dela naturarenganako hurbiltze soil, edo ekologia ulertzeko saioa. Baina ez da izan behar alderdi ekonomiko eta teknologikoetara loturiko hezkuntza, horiek omen direnean ingurumen krisia konpontzeko gako.

Ingurumen krisia, E. Leff-en (2006) esanetan, ezagutzaren krisia da, zibilizazio eredu baten krisia. Horregatik, ezin da zatika tratatu, edo ondorioei begiratu bakarrik, osotasun ikuspegiarekin kudeatu behar dugu, zergatuei zein etorkizunari begiratu. Autore askok diote ingurumen hezkuntza ulertu behar dela etorkizunerako hezkuntza gisa, aldaketarako hezkuntza gisa. Zentzu horretan,

jasangarritasunerako ingurumen hezkuntzaren aldeko aldarriak ugariak eta tan-  
kera askotarikoak dira.

2005ean Nazio Batuek sustaturik, eta UNESCOren ardurapean, *Nazio Batuen Ga-  
rapen Jasangarrirako Hezkuntzaren Hamarkada* hasi zen, irismen handiko ekimen  
komplexua. Hamarkadak duen helburu nagusia da garapen jasangarriaren berezko  
baloreak hezkuntzaren alderdi guztietan barneratzea, jokabide aldaketa errazte-  
ko, gizarte jasangarrirago eta guztiontzat justuago bat lortzen laguntzeko.

Urte berean, Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Batzordeko Europako Komisio  
Ekonomikoak (EKE) *Garapen Jasangarrirako hezkuntzaren EKEn Estrategia* ezarri  
zuen. Han zehazten denez: "Gure etorkizuneko ikusmiran, eskualde bat irudikatzen  
dugu, balore adostu batzuk bere egin dituen: elkartasuna, berdintasun, herri, na-  
zio eta belaunaldien arteko errespetua. Eskualde horrek ezaugarritzat du garapen  
jasangarria, eta horrek bere barne hartzen du ekonomiaren bizitasuna, justizia,  
gizarte kohesioa, ingurumenaren babesa eta natur baliabideen kudeaketa jasan-  
garria, gaurko belaunaldiaren premiak aseko dituen, etorkizuneko belaunaldien  
aukera arriskuan jarri gabe. (...) Hezkuntza, gainera, giza-  
eskubidea da, ezinbesteko baldintza garapen jasangarrirako, eta funtsezko tresna kudeaketa politiko onean,  
erabaki zentzuzkoak hartzeko orduan eta demokraziaren sustapenean. Ondorioz,  
garapen jasangarrirako hezkuntzak irudikapen hori egia bihurtzen lagun dezake.  
Hezkuntza mota honek lagundu egiten die pertsona, talde, komunitate, erakunde  
eta herrialdeei, iritziak eraikitzeko gaitasunean eta garapen jasangarriaren alde-  
ko erabakiak hartzen. Pentsaera aldaketa bultzatzen dezake, eta horrek, finean, mun-  
dua leku seguruago, osasuntsuago eta aberatsagoa bihurtuko du, bizitza kalitatea  
hobetuz. Garapen jasangarrirako hezkuntzak hausnarketa kritikoa susta dezake,  
autonomia eta kontzientzia handiagoa, ideia eta kontzeptu berriak esploratzeko,  
tresna eta metodo berriak garatzeko".

Erreferentzia teoriko eta politiko hauen ondoren, hedatuz doa munduan jasan-  
garritasunerako ingurumen hezkuntza, batez ere esparru formalean. Milioika  
ikasle ari da jasangarritasunerako hezkuntza programetan eta proiektuetan par-  
te hartzen, erakunde publikoek, gobernuz kanpoko erakundeek eta era askotako  
elkartek antolatutakoetan. Egitasmo horietako askok eskola eta tokiko egoera  
kontuan hartzen dute, irauteko gogoia dute, eta gero eta parte hartzaile gehiago  
dute. Ikastetxeko hezkuntza komunitatea dute helburu, ikastetxearen ingurumen  
kalitatea hobetu nahi dute, eta udalerrietako Tokiko Agenda 21n sartzen dira.

Esperientzia integratuak dira, ikastetxeak jasangarritasunerako ingurumen  
hezkuntzarekin duen konpromisoa ageriko egiten dutenak.

## Ingurumen hezkuntza Euskal Autonomia Erkidegoan

Historikoki, euskal gizarteak ingurumenarekiko sentsibilizazio handia erakutsi izan du. 1980ko hamarkadan hasi zen ingurumen hezkuntza bere lehen urratsak ematen Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). 1983an, ikastetxeetako lehen ingurumen jarduerak garatu ahala, ingurumen hezkuntzako lehen zentroa sortu zen, Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroa (SEEZ). 1985ean sortu zen *Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua*, eta 1986an *Euskal Autonomi Elkarteko Ingurugiro Hezkuntzari buruzko I Jardunaldiak* izan ziren, Sukarrietako SEEZ-en hain zuzen: bertan Euskal Herrian eta beste erkidego batzuetan garatzen ari ziren jardueren berri eman zen, hezkuntza formala zein ez-formalean, batik bat ezagutzan eta natur ingurunearekin dugun harremanean zentratutik.

Urte hauetan zehar, EAEko ingurumen hezkuntzako baliabideak ugalduz joan dira: baserri-eskolak, natur ikasgelak, ingurua ezagutzeko zentroak, ingurumen hezkuntzako udal zentroak, ingurumen hezkuntzako enpresak, ingurumen prestatutzako zerbitzuak, fundazioak... Ingurumen hezkuntzaren alorreko ahalginak bideratzeko egitura sendoa osatuz doaz horiek. Funtsean, hezkuntza formala indartzeko zerbitzu eta baliabideak dira, baina hezkuntza ez formalera ere bideratzen dira.

1990ean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, eta Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Saila elkartu ziren *Ingurumenarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegia sortzeko (IIHII edo CEIDA, gaurko Ingurugelak)* helburu hauekin:

- a. Eskola-programazioan lagungarri izango diren jarduerak sustatzea eta bul-tzatzea, programazioa ingurumenaren errealitatera hurbiltzeko asmoz.
- b. Ingurumen hezkuntzaren diziplinarteko tratamendua irakaskuntza-programetako eremu desberdinetan sustatzea.
- c. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekiko lankidetzara jorratzea, ingurumen hezkuntza eskola-jardueraren garapenean integratzea erraztuko duten irakasleen prestatutzarako programak diseinatu eta martxan jartzeko.
- d. Ikastetxeetako ekimen eta baliabideen koordinazioa sustatzea, ingurumenari buruzko eskaintza koordinatua eta koherentea antolatu ahal izateko.
- e. Eskola-komunitate estamentu guztiak sentsibilizatzea ingurumen hezkuntzaren helburuak lortzeko denak inplikatzeko beharrezanaren inguruan.

- f.** Ingurumenari buruzko gaiak ikastetxeetan landu ahal izateko beharrezkoa den material egokia diseinatu eta osatzea.

Ingurugelak sortzeak bultzada handia eman zion EAEko ingurumen hezkuntzari: ingurumen hezkuntzako proiektuak sartu edo indartu ziren ikastetxeetan, irakasleek prestakuntza eta aholkularitza izan zuten, material didaktikoa eta lagungarria sortu zen, hezkuntza berriztatzeke jardunbideetan ikerketa eta esperimentazioa gauzatu zen...

Hezkuntza erakundeak ingurumen hezkuntzaren bizitasun eta garrantziaz jabetu ziren, eta zehar-lerro gisa azaldu zen gaia 1992ko curriculum berrian, ingurumena ulertzeko konpetentzia indartu asmoz; horretarako, bideak izanik ezagutza, kontzientzia eta sentsibilizazioa, ekiteko eta parte hartzeko gaitasuna, arazoak igarri, aurreikusi edota konpontzeko trebetasuna.

Ingurugelak 1991. urtetik antolatzen dituzte Ingurumen Hezkuntzaren Topaketak. Horretan diharduten ikastetxeentzat, esperientziak trukatzeko aukera dira, kontaktuak egin eta baliabideak ezagutzera emateko. 1991an Bilbon egin ziren *EAEko Ingurugiro hezkuntzari buruzko II Jardunaldiak* eta ingurumen hezkuntza sustatzen duten hainbat erakundek bat egin zuten han: euskal herritar gehienak inguru urbanoan bizi direnez, inguru urbano eta naturalaren arteko elkar-harmanaz, aukera eta etorkizuneko erronkez egin zen hausnarketa. Aldarri egin zen jardunaldietan, "ingurumen hezkuntza margo geruza berdea baino gehiago izan behar du, eta gizarte aldaketarako faktore bilakatu".

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak urtero kaleratutako Agindu bateratuaren bidez diruz laguntzen zaie ikastetxeei ingurumen hezkuntzako proiektuak garatzeko, Ingurugelen laguntzarekin, prestakuntzarekin eta bertako material didaktikoekin. Bost Ingurugelen artean, irakasle eta ikastetxeei laguntzeko baliabide publikoen sare sendoa dago, eta horren esku dago unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan ingurumen hezkuntzako plan eta programen koordinazio eta garapena. Bestek beste, 1992tik 2000ra *Eskola ekologikoa* egitasmoa egon zen martxan, ingurumenari buruzko analisi eta ekintza ikastetxe barrurantz ere zuzentzeko, eskolako eko-auditorien bitartez. Urte horietan, halaber, gero eta eskola gehiagok ekin zion ingurumen hezkuntzako proiektuak garatzeari.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, halaber, ikasleek zein herritar guztien artean ingurumenaren aldeko sentsibilizazio kanpainak sustatzen ditu: *Azterkosta* (nazioarteko *Coastwatch* ekimenaren barruan) eta *Ibialde*, eta Ingurugelak dira ikastetxeetan hau koordinatzeko arduradunak.



1998an hiru euskal hiriburuetakoz zenbait ikastetxeetan *Ekologia eskolara* proiektua abiatu zen, Ingurugelen eta hiru udalen artean, ikastetxeak tokiko ingurura irekitzeko, eta kudeaketa eta heziketa modu ahalik eta koherente eta onuragarrian bateratzeko. 2003ra arte luzatu zen programa hau.

*Euskadiko Ingurumen Hezkuntzari buruzko III Jardunaldiak* Donostian izan ziren 2002an, eta bertan, Tilburyk jaunak zera esan zuen: "Mundua bidezko eta osasuntsuagoa izan dadin egin beharreko aldaketak gauzatzeko, ingurugiro hezkuntzak hezkuntza maila eta ingurugiro alor guztietan egon behar du modu eraginkorrean integraturik..." (*Ihiza* 3).

*Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen-Estrategia 2002-2020* dokumentuak ere hezkuntza azpimarratzen du: "Helburua da pertsona oro jabetzea bere harrera eta aukerek ondorioak dituztela gizarte eta ingurumenean, eta hortaz, aukera alternatiboak aztertu eta baloratu ditzala. Gizartean behar diren aldaketa esanguratsuak lortzeko, profesional guztien formakuntzan eragin behar da, haien jarduerak ingurumenean eragin zuzen edo zeharkakoa baitute". Unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaren esparruan, Estrategiak honako konpromisoa aipatzen du, besteak beste: 2012. urterako Eskolako Agenda 21 ezarri derrigorrezko hezkuntzako ikastetxe guztietan.

2003. urtean jarri zen martxan Eskolako Agenda 21, eta hainbat euskal ikastetxetan ezarria dago gaur egunean. Batetik, aurreko ekimenen funtsezko helburuei eusten die Eskolako Agenda 21ek, eta, bestetik, jasangarritasuna eta ikastetxeek tokiko komunitatean gehiago parte hartu beharra azpimarratzen ditu.

Bestalde, *EAEko Jasangarritasuneko Ingurumen-Hezkuntzako Planak* proposatzen duenez, "jasangarritasunerako hezkuntzak bultzada eman diezaioke ekintza jasangarriari, beharrezko konpetentzia, jarrera, trebetasun, ezagutza eta baloreei forma emanez".

Hezkuntza sisteman ere dimentsio hau integratu behar diren garrantzia azpimarratzen da. EAEko curriculum berriak dio Oinarrizko Hezkuntzaren lehen helburua hau dela: "Ikasleak prestatzea pertsona helduen bizitzari ekiteko; bizitza oso bat izateko, gizabanako diren aldetik; gizarteko herritar aktibo izateko; eta izadiaren zaintzarekiko eta garapen jasangarriarekiko konpromisoa duten pertsonak izateko". 40 urteren buruan esan dezakegu, ñabardurak kendu gabe, gaurko curriculum ofizialean barneratu dela ingurumen hezkuntzako lehen esperientzien ondarea.

Gizarte transformaziorako beharrezko aldaketa honek, jasangarritasunean oinarrituta, hainbat alorretan du eragina: bai "hezkuntzan" eta bai "ingurumen hezkuntzan", eta bai "ebaluzioa" zein "kalitatea" kontzeptuetan.

## Kalitatea ingurumen hezkuntzan

Hausnarketa, balorazio eta hobekuntzarako urrats gisa ulertu behar dugu ebaluaketa, eta jasangarritasunerako hezkuntzak aurrean dituen fenomeno konplexuetan funtsezko osagarria da. Gainera, ebaluaketak iraun egin behar du denboran, jarraitasuna emanaz bere funtzioari.

Kalitatearen ebaluaketa beharrezkoa da, sistema sozialaren garantia gisa. Ingurumen hezkuntzaren kasuan, kalitatearen ebaluaketa bermea izango da: konplexutasuna, aniztasuna, ekintza-hausnarketa, ingurumen arazoei aurre egiteko konpetentzia, ikuspegi sinkroniko eta diakronikoa, eta abarretan zentratutako prozesuetan. Zehazki, Eskolako Agenda 21ek, kalitatearen ebaluaketak bermatzen du ikastetxeko proiektuek, markatutako programaren helburuetara jotzen dutela.

Arriskua ere bada kalitatea berme gisa hartzean: uniformizazioa, erredukzionismoa, dena neurtu beharra... Horiek gainditzeko ahalegina egin behar da, beren balorazioak ulertzen eta alderatzen lagunduz pertsoneri, testuinguruari doitzeko eta erregulatzeko gauza izan daitezen proiektuak garatu ahala.

Beste arrisku bat ere badago ingurumen hezkuntzako programen garapenean. Aktibismoa aipatu dugu lehen, baina horrez gain, proposatu daitezkeen jasangarritasunerako ekintza edo lan-lerroak ez dute koherentzia edo batasun handirik ikastetxearen barne egoerarekin. Esperientziaren kalitatearen ebaluaketak bi kalitateei eutsi nahi die: koherentzia eta batasuna. Ikastetxeko ingurumen hezkuntza ezin da izan denbora, curriculum eta egitarauetan gainkarga; alderantziz, irakaskuntza-ikasketa prozesuaren hobekuntza aukera gisa ulertu behar da, integrazioa eta koherentzia lortzeko, berrikuntza aberatsak eskaintzeko ikastetxeari.

Ingurumen hezkuntza ez da bakarrik kolorezko zakarrontziak jartzea, edo ohi-tura eta portaerak aldatzen saiatzea. Jasangarritasuneko ingurumen hezkuntzak ikuspegi berrien eraikuntza eragin behar du: etorkizun komuna ikusteko moduak, Lurra esperimentatzeko eta arazo ekologiko, sozial eta ekonomikoak konpontzen modu aktiboan parte hartzeko. Hezkuntza formalean, jasangarritasuneko hezkuntzan parte hartzen duen ikastetxea, etorkizunerako irakasten duen eskola-komunitatea da, konplexutasun kulturaren parte, pentsamendu kritikoaren erabiltzaile, baloreak sustatzen ditu, ingurumena bizi eta sentitzen du, eta arduraz jokutzen du. Ondorioz, hezkuntza berritzailea eskaintzen du eta

berrikusi egiten dira antolakuntza, funtzionamendua, kudeaketa, partaidetza demokratikoa, alorrak, metodologia, eta irakasleen papera; eta, ondorioz, sus-tatu egiten du halaber sare lokal, erregional eta globalen arteko elkarlana.

Hemen proposatzen dugun kalitatearen ebaluaketa paradigma sozio-kritiko ba-ten barnean dago, eta horren baitan ingurumen hezkuntzaren helburua da gi-zakian aldaketa eragitea munduarekiko, biosferarekiko eta bertan gizakiak duen zereginaren ikuspegian. Ikusmira berri horretan mundua sistema gisa ulertzetik abiatuko gara, eta interesa zentratuko dugu sistema horren barneko harremanetan: harreman ekologiko, sozial, kultural, politiko, ekonomikoak...

Ebaluaketak, aldaketarako tresna gisa ulerturik, kontuan hartzen ditu hala emai-tzak nola prozesuak, eta egitasmoan parte hartzen duten agenteen partaidetza eta auto-ebaluazioa du oinarri. Gainera, kalitate kontzeptua estrukturala da marko honetan, jarraikor eta dinamikoa aldi berean, estandarrik gabeko proze-suetan ere auto-antolakuntzan eta praktika berritzaileetan aurrera egiteko auke-ra ematen die agente eta ikastetxeei. Horretarako, beharrezkoa dira sormena eta hausnartzeko gaitasuna, ekimenak baloratu, zuzendu eta hobetu ahal izateko.

Ibilian bidea egitea da helburua.



# 2.

## Testuingurua: Eskolako Agenda 21

1. Kalitatea jasangarritasuneko hezkuntzan
3. Ebaluaketa sistema: zergatia eta helburuak
4. Ebaluaketa sistema: edukiak eta prozedura
5. Ebaluaketa sistema: kalitate irizpideak

## Aurrekariak eta Eskolako Agenda 21

Esan bezala, ingurumen hezkuntzak gero eta eragin handiagoa du EAEko ikastetxeetan. Lehen proiektu bakan eta partzialetatik, egitasmo zabalagoetara igaro gara, non ikastetxeek funtzionamendu arduratsua eta jasangarria lortzen duten. Honela hasi ziren 1990eko hamarkadan *Eskola Ekologikoak*, *Ekoeskola* eta *Ekologia Eskolara* egitasmoak.

Bestalde, EAEko udalerrri asko hasi dira 2001etik aurrera Tokiko Agenda 21 programak garatzen. Horrek aukera ederra eskaini du ingurumen egitasmoak sartzeko ikastetxe eta udalerrietan. Sinergia horren ondorio izan da 2003an Eskolako Agenda 21 sortu izana, ikastetxeen jasangarritasunerako eta kalitatezko ingurumen hezkuntzarako egitasmoa; horren oinarri hezkuntza komunitatea da, eta udalerrriaren jasangarritasunean ere parte hartzen du. Hezkuntza berritzatzeko proiektuen artean garatzen da programa hau ikastetxeetan.

Programak eskolako zein udalerriko edo eskualdeko esparruan eragiten du, eta, alde horretatik, eskola eta herriaren arteko harremana estutu eta aberasten du. Hezkuntza komunitatearen partaidetza du oinarrian, bereziki ikasleen protagonismoa. Ikastetxean zein udalerrian, gai hauen kudeaketa arduratsu eta jasangarria sustatzen du,; baliabideak, erabilitako materialak, energia, hondakinak eta, oro har, eskolaren jarduerak ukitzen duen oro. Eskolako Agenda 21k berekin dakar curricula berritzea, heziketaren helburuez hausnarketa bideratzen duelako, gertuko ingurunean garatzen direlako ikasleen oinarritzko konpetentziak. Gainera, indartzen ditu diziplinarteko metodologia, elkarbizitza, elkarlana eta metodo berritzaileak.

## Helburuak eta konpromisoak

Ingurumen hezkuntzako egitasmoa denez, Eskolako Agenda 21en helburu nagusia da ezagutzak, gaitasunak, jarrerak, motibazioa eta konpromisoak garatzea, arazoan konponbidean pertsonalki edo taldean eragiteko. Egitasmoaren bidez, ikastetxean honako helburuak lortu nahi dira:

- **Hezkuntza–komunitatean** tokiko zein planetako ingurumenaren egoeraz sentsibilizazioa eta ezagutza **lantzea**, jasangarritasunaren aldeko jarrerak eta konpromisoak eragiteko.
- Ikastetxe eta udalerriko ingurumen–arazoan **konplexutasuna identifikatzea, aztertzea**, alternatibak proposatzea eta Eskolen Udal Foroetan ezagutaraztea.
- Ikastetxe eta udalerriko jasangarritasuna lortzeko **prozesuak abiatzea**.
- Ikasleei beren ikasketetan, eskolan eta udalerrian bizitzan **protagonismoa ematea**.
- Udalerriko edo eskualdeko eskolen arteko **laguntza bultzatzea**, baita erakunde eta eskolen artekoa ere.
- Garapen jasangarriak dakartzen eskakizunei erantzun ahal izateko **curriculum egokitzea**, diziplinartekotasuna sustatuz eta metodologiak ikertzaileak eta parte–hartaileak erabiliz.

Ikastetxe bakoitzak beren testuinguru, ezaugarri eta interesen arabera moldatu eta zehaztu beharko ditu helburu horiek. Ez da aski, ordea, helburuen definizioa argia. Etorkizun justuago eta jasangarrienera daraman bideak aldaketa sozial eta kulturala behar du, eta hori ez da lortzen ikastetxea eraldatu gabe; hau da, ikastetxearen antolakuntza, barruan zein inguruan dituen harremanak, prozesuak, baliabideak eta espazioak.

Ikastetxeek ezin diote horri guztiari beren kasa ekin; horregatik, Eskolako Agenda 21 egitasmoak Tokiko Agenda 21en parte dira, eta elkarrekin jarduteko konpromiso bat sinatzen dute inplikaturak dauden gizarte–agente guztiek (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; udala, eta ikastetxeko zuzendaritza). Honako konpromisoa, hain zuzen:

Garapen Jasangarrirako Euskal Estrategia (2002–2020), ingurumen–gaiei buruzko Europar Batasunaren VI. Programa eta Nazio Batuek 2005–2015 aldia Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren hamarkadatzat hartzea direla–eta, administrazioei, hezkuntza–elkarteari eta herritarrei gomendatu eta eskatu egiten zaie garapen jasangarria lortzeko itunak egitea eta erantzukizuna hartzea.

Deklarazio hori sinatuta, baliabide naturalak eta biodibertsitatea zaintzearen, biztanleriaren bizi–kalitatea ziurtatzearen eta herritarrak garapen jasangarrirako gaitzearen garrantzia eta beharra onartzen dugu.

Onartzen dugu, era berean, Euskadiko gazteek eta hurrek euren hiriri eta garapen jasangarriari buruzko gauzak esateko eta ekarpenak egiteko dituztela. Horregatik bultzatzen dugu Eskolako Agenda 21, ikasleak euren ikastetxearen eta udalerrriaren ingurumen–kalitatean eragina duten arazoetan parte hartzen, erabakiak hartzen eta inplikatzeko ohitzea helburu duen programatzat.

Jendaurrian adierazten dugu Eskolako Agenda 21 eraikitzen gogoz lan egiteko hartu dugun konpromisoa. Horrek eskatzen du ingurumenarekiko erantzukizunaren zentzua sustatzea, ingurumenarekin lotuta betebeharrak betetzea eta ingurumenaren egoera, balore demokratikoak eta gure ingurunearen jasangarritasuna arian–arian eta etengabe hobetzera zuzendutako neurriak hartzea.

- **Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak** aholkularitza didaktikoa ziurtatuko du, Ingurugelen bidez, parte hartzen duten irakasleen prestakuntza eta ikasmaterialeen eskaintza. Dirulaguntzak eskainiko ditu ikastetxeentzako urteroko deialdien bitartez eta udalekin edo mankomunitateekin sinatu beharreko hitzarmenen bidez.
- **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak** Garapen Jasangarrirako Hezkuntza lehenetazko programatzat tratatzea bermatuko du. Horretarako, irakasleen laneko esparrua eta ordutegia Eskolako Agenda 21 programaren koordinazio– eta berrikuntza–eskizunetara egokitzeko bidea emango du.
- **Udalek eta mankomunitateek** Tokiko Agenda 21 programaren zatitza hartuko dute Eskolako Agenda 21. Eskolako partaidetza–foro bat ezarri eta sustatuko dute, hiri–ingurumena aztertzeko eta ikastetxeen proposamenak jasotzeko. Kanpoko aholkularitzaren edo laguntza–enpresaren bitartez proposamenei erantzun eta ikastetxeei lagunduko diete.
- **Ikastetxeek** Eskolako Agenda 21 programaren proiektua lantzeko eta, curriculum– eta hezkuntza–proiektuetan barne hartuta, haren filosofia eta metodologiari jarraituz abiarazteko konpromisoa hartuko dute. Ikastetxeak ingurumen–batzordeak eratu eta proiektuaren arduraduna izendatuko dute. Garapen–prozesua bultzatu eta lortutako emaitzak ebaluatuko dituzte. Gainera, urteko emaitzak eskola– eta udal–elkarteari jakinaraziko dizkiete.






EAEan, 2002an, sortu zen Eskolako Agenda 21 programa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren, arteko gobernu-konpromiso gisa. Bi sailek, alde batetik, Ingurugelen bitartez aholkularitza eta material didaktikoa eskaintzen dizkiete ikastetxeei; eta, bestetik, proiektuak bideratzeko dirulaguntzak ere banatzen dituzte.

Bere aldetik, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Tokiko Agenda 21eko udalerriak biltzen dituen Udalsarea 21en bidez, Eskolako Agenda 21 garatzeko baliabide ekonomikoak bideratzen ditu udalerrri horietako ikastetxeetara. Era horretan, udalak ikastetxeen zerbitzuan jarriko du udal teknikaria edo ingurumen hezkuntzako enpresa aholkularia, udal eta ikastetxearen arteko zubi izan dadin: tokiko datuak bideratu, erakusketa eta kanpainak egin, eskola foroak antolatu.

Ikastetxeek, laguntza horrekin, Eskolako Agenda 21 proiektuak garatzen dituzte ardatz hauen inguruan: kudeaketa jasangarrira, hezkuntza komunitatearen partaidetza demokratikoa, eta berrikuntza pedagogikoa. Udalerrri edo eskualdeko ikastetxeen arteko koordinazioak esperientzia eta jarduna aberasten ditu, ikastetxe publiko eta pribatuak elkarlanean aritzen baitira, nola lehen eta bigarren hezkuntzakoak hala zentro handiak eta txikiak.

Programaren emaitzek hobekuntzak dakarzkiete ikastetxeei, eta ingurumen jasangarritasuneko proposamen bilakatzen dira, hezkuntza esparruko berrikuntza pedagogikoa eragiten dute, eta udalerrriaren hobekuntza jasangarriko proposamen parte-hartzaile eta aktiboak dira.


Agenteen arteko harremanak eskema honetan ikus daitezke:



2003an, 27 ikastetxe hasi zirenean Eskolako Agenda 21ekin, apenas zegoen erreferentziarik, egitasmo aitzindaria zen funtsean. Ez da urte asko igaro, baina programa nabarmen sendotu eta hedatu da. 2008an zifra hauetatik gora zeuden inplikaturak: 120 udalerrri, 460 ikastetxe, 17.000 irakasle, 180.000 ikasle. EAEko jasangarritasuneko hezkuntzan, euskarri inportanteena bilakatu da Eskolako Agenda 21. Egindako bidea, halaber, esperientzia interesgarritz betea dago; agerian geratu dira programa-ren potentzialtasuna eta XXI. mendeko erronkei erantzuteko duen gaitasuna.


### Eskolako Agenda 21en dauden ikastetxeak

Eskolako Agenda 21en murgilduta dauden derrigorrezko ikastetxeen ehunekoa




### Ingurugelako langileak

Ingurugelako langileak aholkulari lanetan




### Parte hartzen duten irakasleak

Eskolako Agenda 21en parte hartzen duten irakasleak



### Parte hartzen duten ikasleak

Eskolako Agenda 21en parte hartzen duten ikasleak



Partaideak (agenteak zein ikastetxeak) ugaldtu ahala, programa finkatzen ari zela agerikoa egin da. Horren seinale dira ingurumen hezkuntzako prestakuntzaren eskaintza eta eskaria hazi egin direla, baita, eskolen udal foroen ugaltzea eta horien sendotasuna, laguntza ekonomikoen hazkundera, programaren gida metodologikoa berritu izana, hezkuntza materialen aukera zabala...


UNESCOk jasangarritasuneko hezkuntzarako jardunbide egokitzat jo du Eskolako Agenda 21, Garapen Jasangarriarako Hezkuntzaren Hamarkadaren (2005–2024) barruan. Nazioarteko ezagutza horrekin, eta esperientzia aberatsetatik abiatuta, fase berriari ekiten dio orain programa honek.

Ikastetxeak jasangarritasunerako bidean jarri dira, kudeaketan, curriculumean eta agen-

teekin partaidetzan. Esperientzia horietan askok kalitate nabarmena erakutsi dute, programak botatako erronketan aurrera egin dutelako: XXI. mende hasierako ingurumen hezkuntzaren helburua da errealitatea ulertzen laguntzea, aldatetan eragiten gai diren pertsonak formatzeko, gaurko eta etorkizuneko ekintza berritailerako.


Jasangarritasunak ez du errezetarik, ez da kontu finkoa, behin lortuz gero akabo esan daitekeena. Zakarrontziak, eta natur parkeak bisitatzea, beharrezkoak dira, baina ez dira nahikoa. Aktore guztien ikasketa prozesu gisa ulertu behar da jasangarritasuna ikastetxean: hausnarketa ekintza da, auto-erregulazioa eta





## Eusko Jaurlaritzak Eskolako Agenda 21 garatzera zuzendutako aurrekontua



## Landutako gaiak

IEP (2003-2007) ren arabera landutako gaien sailkapena



**EDUCATION for Sustainable Development**  
 United Nations Decade 2005-2014

**“GOOD PRACTICE” IN EDUCATION FOR SUSTAINABLE DEVELOPMENT  
 IN THE UNECE REGION**

**“Good practices in ESD”** are initiatives closely related to Education for Sustainable Development, that demonstrate good practice, generate ideas and contribute to policy development. These good practices:

- focus on the educational and learning dimensions of sustainable development.
- are innovative. They develop new and creative solutions to common problems, such as:
  - ❖ ways to discover what the key local issues of sustainable development are
  - ❖ ways to adapt processes to relevant teaching and learning strategies
  - ❖ ways of fostering links between learning situations and the community
  - ❖ ways of integrating local knowledge and culture
  - ❖ curriculum development processes enabling content to be decided as locally relevant
  - ❖ starting points on how Education for Sustainable Development can best be put into effect.
- make a difference. They demonstrate a positive and tangible impact on the living conditions, quality of life of the individuals, groups or communities concerned. They seek to bridge gaps between different societal actors/sectors and are inclusive, in order to allow new partners to join the implementing agents/bodies.
- have a sustainable effect. They contribute to sustained improvement of living conditions. They must integrate economic, social, cultural and environmental components of sustainable development and reflect their interaction/interdependency in their design and implementation.
- have the potential for replication. They provide effective methodologies for transdisciplinary and multi-sectoral co-operation. They serve as models for generating policies and initiatives elsewhere.
- offer some elements of evaluation. They have been and can be evaluated in terms of the criteria of innovation, success and sustainability by both experts and the people concerned.

***If you submit more than one “good practice”, please indicate the priority 1, 2 or 3.***

- NAME OF THE INITIATIVE CONSIDERED AS A GOOD PRACTICE<sup>1</sup>:**  
 SCHOOL AGENDA 21 IN THE BASQUE AUTONOMOUS COMMUNITY
- RESPONSIBLE COUNTRY/ORGANIZACIÓN:** BASQUE AUTONOMOUS COMMUNITY (SPAIN)  
 Name of the Organization: INGURUGELA  
 Mailing address: c/Ondarroa 2- 48004 BILBAO  
 Telephone: 34 944114999 Fax: 34 944114778 Internet:  
 e-mail: a.fostolaza@ej-gv.es
- CONTACT PERSON:** M<sup>a</sup> Asunción Fernández Ostolaza (Head of INGURUGELA of Bilbao)
- FOCUS OF THE INITIATIVE:**

✓ Education/Learning	✓ Water	✓ Citizenship
✓ Educators	✓ Climate Change	✓ Research / Development
✓ Corporate Responsibility	✓ Biodiversity	✓ Regional / international cooperation
✓ Environment	✓ Sustainable Consumption	✓ Agenda 21 Local cooperation
- INITIATIVE DESCRIPTION**  
 School Agenda 21 (A21E) is a programme that brings together the efforts of the education community (teachers, pupils, families and non-teaching staff) to achieve quality in schools and sustainability for the education centre and environment, contributing to a sustainable development of the municipality.  
 The programme is coordinated by INGURUGELA, a governmental institution created in 1990 through an agreement between two Basque Government Departments, the Department of Education, Universities and Research and the Department of the Environment and Regional Planning, and involves the work of 14 advisors.

ebaluaketa, orainean bezainbat etorkizunean pentsatuko duen gizarte berri baten eraikuntza, ibiliarekin emaitzak lortzen diren prozesu bat; emaitza horiek bidean doazen beste batzuentzat ere erreferentzia izaten dira.

## 3.

## Ebaluaketa sistema: zergatia eta helburuak

1. Kalitatea jasagarritasuneko hezkuntzan
2. Testuingurua: Eskolako Agenda 21
4. Ebaluaketa sistema: edukiak eta prozedura
5. Ebaluaketa sistema: kalitate irizpideak

Ebaluaketa sistema ezartzen da jasagarritasuneko hezkuntzan garatutako esperientzien kalitatea neurtzeko. Kalitate irizpide batzuen arabera, ebaluaketan sartzen diren ikastetxeek, neurri minimo batzuk gaindituz gero, "Eskola jasagarria" agiria jasoko dute.

EAEko ikastetxeetan Eskolako Agenda 21 hain ondo zabaldu izanak erakusten du programan inplikaturako agenteek konpromiso sendoa dutela, eta kalitatezko proiektuak daudela, globalak, ondo uztartuak herriaren, ikastetxearen eta pertsonen eguneroko bizimoduan. Esperientzia horietako batzuk Ingurugelek urtero antolatutako Topaketetan aurkeztu izan dira. Beste batzuegandik, partaide berrientzat formazioa etorri da. Batzuk, azkenik, argitaratu egin dira *40 jardunbide Eskolako Agenda 21 programan* liburuan. Programa hazi egin da kantitatean, baina, baita kalitatean ere.

Programaren kalitatea hobetzeko helburuarekin ikerketa egin zen, eta haren emaitza argitaratu: *Eskolako Agenda 21 programaren ebaluazioa (2003–2006)*. Agerian geratu ziren lan horretan aukera potentzialak zein ordura arte egindako prozesuen emaitzak. Ebaluazio horretan, programaren garapen egokirako funtsezkotzat jo ziren zuzendaritzaren inplikazioa; eskolako eta tokiko ingurumenaren ezagutza, ulermena eta kudeaketa arduratsua; ikasleen protagonismoarekin egindako plan-gintza; eta hezkuntza komunitate osoari begirako komunikazioa, ingurumen sentsibilizazioa gizartean zabaltzeko.

Ikastetxeen kezkak ere jaso ziren halaber, eta horien artean bat nabarmentzen zen, egindako ahaleginak gizartean esker sari gutxi jasotzen zuela, tokiko zein erkidegoko hezkuntza administrazioen aurrean "ikusezinak" zirela. Beraz, beharrezkoa

zen kalitatezko esperientziak zituzten ikastetxeei aitormena eta diskriminazio positiboa eskaintzea, irizpideetan oinarritutako ebaluaketa sistema baten bidez.

Hortaz, hezkuntza eta ingurumeneko administrazioek eta Ingurugelek ez dute zalantzarik Eskolako Agenda 21eko partaide askok gogo eta dedikazio handia jarri dutela, eta beharrezkoa dela proiektuen kalitatearen errekonozimendua.

Bestalde, Administrazioentzat Eskolako Agenda 21 abian jartzea, programaren hazkundera eta funtzionamendua, ahalegin ekonomiko eta soziala da, eta hori arrazoitu egin behar da. Justifikazio horien artean, ezinbestekoa da programaren bikaintasun-emaizak kontuan hartzea.

Gainera, Eskolako Agenda 21en dabiltzan ikastetxeei erreferentziak eskaini behar zaizkie, norabide bateratuan abiatu daitezten. Ikastetxeek badituzte erreferentziak, nondik datozen eta non dauden, eta horietatik abiatzen dira beren hezkuntza komunitatearen lankidetzarekin eta Ingurugelen laguntzarekin. Kanpoko orientazioa ere beharrezkoa da, bidean lagungarri izan dadin, kontrasteak eta animuak eskaintzeko, jardunean murgilduta daudenei helburu zabalagoak gogoratzeko, eta irtenbideak irekitzeko bide batzuk agortuta daudela dirudienerako.

Amaitzeko, interesgarritzat jotzen da erreferentziatzko ikastetxeen sare bat sortzea, besteentzat gidari eta eredu izan daitezten. Sare horrek formazioa eta motibazioa emango du, ikastetxeen proiektuak aurrera eramateko.

Beraz, ebaluaketa sistema honen helburuak honakoak dira:

- Eskolako Agenda 21 kalitate-irizpideekin garatzen duten ikastetxeen premiei erantzun.
- Ikastetxeek hezkuntzan, partaidetzan eta kudeaketa jasangarrian egindako lana, prozedurak eta esperientziak; horien kalitatea, azken batean aitortu.
- Proiektua bultzatzen duten talde pedagogiko, ikasle, pertsonal ez irakasle eta familien lana aitortu.
- Beren eredu, egiteko era, kalitate esperientziengatik eta talde-lanagatik nabarmentzen diren erreferentziatzko ikastetxeen sarea sortu.
- Programa bera hobetu, ikastetxeetan etorkizunean hobeto gara dadin.
- Helmuga bat baino gehiago, bideak eskaini ikastetxeei, hezkuntza kalitatearen eta ikastetxe eta udalerraren jasangarritasunaren bila abiatu daitezten.



Azken batean, etorkizunerako aukerak ireki, EAEko ikastetxeetan jasangarritasuneko ingurumen hezkuntza garatzeko.





# 4

## Ebaluaketa sistema: edukiak eta prozedura

1. Kalitatea jasangarritasuneko hezkuntzan
2. Testuingurua: Eskolako Agenda 21
3. Ebaluaketa sistema: zergatia eta helburuak
5. Ebaluaketa sistema: kalitate irizpideak

Jasangarritasuneko hezkuntza esperientzien kalitatea neurtzeko ebaluaketa sistema honetan oinarritzen da:

- Adierazleen sistema bat.
- Auto-ebaluazioa eta ebidentzien dokumentazio, auto-erregulazioa izanik helburua.
- Auditoria.

## Adierazleen sistema

Proposatutako adierazleen sisteman datu kuantitatibo zein kualitatiboak bil-tzen dira. Eskolako Agenda 21en ikastetxeko garapenaren alor bat edo batzuk ulertzeko, esplikatzeko edo adierazteko helburua du sistemak.

Adierazleen sistema eraikitzean, zehaztasun maila desberdinak egoten dira. Lehen mailan, Eskolako Agenda 21en berezko helburuak daude. Bigarren mailan, aurreko helburuen adierazleak eta azpi-adierazleak ageri dira. Azkenik, kalitate irizpideek osatzen dute hirugarren zehaztasun maila.

## Helburuak

Programaren helburuek definizioa garatzen dute, eta helmuga eta prozesua barnean dute.

1.taulan ageri dira.

## Adierazleak eta azpi-adierazleak

Bigarren zehaztasun maila batean agertzen dira adierazleak. Neur daitezkeen aldagaiak dira adierazleak, eta ikastetxeari lagundu egingo diote ulertzen non dauden, nora doazen, eta helmugara iristeko zenbat falta zaien. Programaren helburuei erreferentzia zuzena egiten diote batetik, eta, bestetik, ikastetxearen erabaki prozesuan orientabide izan behar dute, programa etorkizunera begira garatzeko. Programaren sei helburuengandik sortzen dira, eta programaren emaitzak neurtu, balioztatu eta alderatzeko aldagaiak dira. Eskolako Agenda 21en barruan, proiektuaren egoeraz eta norabideaz informatzen dizkigute adierazleak, hau da, zehaztutako helburuak gertu edo urruti dauden. Adierazle esanguratsu eta adierazkorrak aukeratu dira, ulertzen errazak, baliotsuak eta alderagarriak.

Azpi-adierazleak ere sortu dira, proiektuen garapena errazago analizatzeko ikastetxeetan. Adierazlearen zehaztasuna handitzen dute azpi-adierazleak, eta proiektuen hezkuntza-koherentzia, antolamenduaren kohesioa eta kontzeptu-osotasuna ematen laguntzen dute, alor desberdin eta garrantzitsuen integrazioa erraztuz. Adierazleak aukeraketa egin da, eta ordena jakina eman zaie, koherentzia bilatuz, nahiz eta, noski, aukeraketak ukoa ere badakarren, eta gainera, diskriminazioa ikuspuntu jakin batetik egiten da. Proposamena dinamikoa da, irekia dago ekarpen aberasgarriei, ikerketa berrien emaitzei, edo programaren garapenean oinarrituriko aldaketei.

Honako ordena hau zehaztu da (ikus halaber 1. taula).

- Lehen helburuan *Jasangarritasuna* adierazlea dugu, eta horretan azpiadierazle bat, *Sentsibilizazioa*, zuzeneko harremanean sentsibilizazioa handitzeko helburuarekin; beste azpiadierazle bat, *Hausnarketa*, ezagutza zabaltzeko helburuarekin lotzen da, eta beste bi azpiadierazleak, *Baloreak argitzea* eta *Eskolako giroa*, jasangarritasunaren aldeko ekimenak eta konpromisoak garatzeko helburuarekin lotzen dira.

## >> Jasangarritasuna

- Bigarren helburutik *Konplexutasuna* adierazlea dator, hiru azpiadierazletan banatua. Lehena da *Konplexutasunaren kultura* eta arazoek konplexutasuna analizatzeko helburuarekin lotzen da. Beste biak (*Etorkizuneko ikuspegi* eta *Alternatibak proposatu*) ingurumen arazoek aurreko ekarpenak eta soluzioak ebaluatzeko helburuarekin lotzen dira. >> **Konplexutasuna**
- Hirugarren helburuan *Prozesua* adierazlean biltzen da, eta hobeto ulertzen da bere lau azpiadierazleetan zatiturik: *Antolakuntza* (hau da, egituren moldaketa), martxan jarritako prozesuen *Metodologia*, horien *Ebaluaketa* eta lortutako *Emaitzak*. >> **Prozesua**
- Laugarren helburuaren muina *Parte hartzea* adierazlea da, eta honek ere lau azpiadierazle ditu. Horietako bi, ikasleen protagonismoa dute ardatz: *Ekintza-rena ezaugarria*, eta *Ikasleen ikuspegi* eta *protagonismoa*. Beste biak ikasleen protagonismoarako bi guneri begira daude: *Hezkuntza komunitatea* eta *Eskoletako Udal Foroak*. >> **Parte hartzea**
- Bosgarren adierazleak, *Elkarlana*, ikastetxeen eta erakundeek arteko kolaborazioaren sustapenaren analisia du helburu. Hiru esparrutako elkarlana deskribatzen dute azpiadierazleek: *Talde-lana ikastetxean*, *Ikastetxeen arteko elkarlana*, eta *Elkarlana udalerrian*. >> **Elkarlana**
- *Curriculum* adierazlearen bidez, Eskolako Agenda 21en seigarren helburuari heltzen zaio. Curriculumarekiko egokitzapena eta metodologia egokien sustapena bilatzen da, azpi-adierazle hauekin: *Irakaskuntza-ikasketa prozesuak*, *Heziketa berrikuntza*, eta *Jasangarritasuneko ingurumen hezkuntza*. >> **Curriculum**

1. taula. Helburuak, adierazleak eta azpiadierazleak.

ESKOLAKO AGENDA 21 EKO HELBURUAK					
1. Hezkuntza komunitatean Tokiko zein Planetako ingurumenaren egoeraz sentibilizazioa eta ezagutza landu, jasangarritasunaren aldeko jarrerak eta konpromisoak eragiteko.	2. Ikastetxe eta udalerriko ingurumen arazoan konplexutasuna identifikatzea, aztertzea, alternatibak proposatzea eta Udal foretian ezagutaraztea.	3. Ikastetxe eta udalerriko jasangarritasuna lortzeko prozesuak abiatzea.	4. Ikasleei bere ikasketetan, eskolan eta udalerrian bizitzan protagonismoa ematea.	5. Udalerriko edo eskualdeko eskolen arteko laguntza bultzatzea, baita erakunde eta eskolen artekoa ere.	6. Garapen jasangarriak dakarzan eskakizunei erantzun ahal izateko Curriculuma egokitzea, diziplinartekotasuna sustatuz eta metodologia ikertzaileak eta parte hartzaileak erabiliz.
ADIERAZLEAK					
1. Jasangarritasuna	2. Konplexutasuna	3. Prozesua	4. Parte hartzea	5. Elkarlana	6. Curriculuma
AZPIADIERAZLEAK					
1.1 Sentibilizazioa.	2.1 Konplexutasunaren kultura.	3.1 Antolakuntza.	4.1 Ekimenen ezaugarriak.	5.1 Talde-lana ikasketxean.	6.1 Irakaskuntza-ikasketa prozesuak.
1.2 Hausnarketa.	2.2 Etorikizuneko ikuspegia.	3.2 Metodologia.	4.2 Perpectiva y protagonismo de la infancia.	5.2 Ikastetxean arteko elkarlana.	6.2 Heziketa berrikuntza.
1.3 Baloreak argitzea.	2.3 Alternatibak proposatu.	3.3 Ebaluaketa.	4.3 Hezkuntza komunitatea.	5.3 Elkarlana udalerrian.	6.3 Jasangarritasuneko ingurumen hezkuntzan .
1.4 Eskolako giroa.		3.4 Emaitzak.	4.4 Eskolen Udal Foroak.		

## Kalitate irizpideak

Hirugarren zehaztapen-mailan kalitate irizpideak eta haien betetze-maila ageri dira. Ebaluatzaileak ordenaturiko eta mailakaturiko irizpide multzo bat da, beste batzuen artean aukeratutakoak eta ondoen dagokiona erreferenziaren ereduaren neurri gisa. Kalitate irizpideak era berean dira kontrol tresnak eta hobekuntzarako aukerak. Bidean gidaritzat hartu behar dira, interesa piztu behar dute, aldaketak eragin. Hezkuntzako praktikatik gertu dauden adierazpide zehatz eta gertukoetan gorpuztutako balioak dira, azken batean.

Lehen atalean adierazten dugun jasangarritasuneko ingurumen hezkuntzaz izan beharreko ikuspegi globalean oinarritzen dira kalitate irizpideak. Han adierazten denez, emaitzen gaintetik, azpimarratu behar dira irakaskuntza-ikasketa prozesuak, ikasleen protagonismo eta konpetentzia, talde-lana, eskolako giroa, antolakuntza, eta abar.

Irizpide hauek gauzatzen dira galdetegiko 100 item edo elementuetan, eta horiek bete behar dituzte ikastetxeek. Hona hiru adibide:

	1. Ingurumen arazoetarako sentsibilizazio-plana badago.	
	23. Ingurumen arazoak tratatzean kontuan hartzen dira ikusmira historikoa, giza-jarduerak eragindako oraingo egoera eta etorkizunekoak.	
	86. Testuinguru anitzak erabiltzen dira, non ikasitakoaren funtzioa aplikatu eta ebaluatu daitekeen.	

Kalitate irizpide hauek baloratzean, maila neurtu eta erantzuna doitzeko, 2. taulak balore-eskala bat dakar, eta hainbat deskribatzaile erantzuna erabakitzen lagundu dezaketenak.

## 2. taula. Deskribatzaileak.

	1-2	3-4	5-6	7-8	9-10
<b>Orokortzea</b>	Garrantzia aitortzen zaio baina aplikatzeko zailtasun handiak daude	Garrantzia aitortzen zaio, eta talde txiki batean, denbora mugatua, aplikatzen da	Talde handi batean denbora mugatua aplikatzen da, edo alderantziz	Talde handi batek denboraz luzez parte hartzen du	Estamentu osora hedatuta da, denbora luzez
<b>Antolakuntza eta funtzionamendua</b>	Antolakuntzako ebidentziaren bat bada	Egituraketa eta sistematizazio ahaleginetan gaude, horiek finkatzekotan	Antolakuntzarako egitura badago	Beharrezko egitura beste batzuekin harreman zuzenean dago, eta bere funtzionamendua ondo ezarria	Egituren molde eta funtzionamendua ebaluazio etengabea dago, emaitzak integratzeko prest
<b>Bultzatze eta jarraipena</b>	Koordinatzaileak bultzatzen du	Koordinatzaileak eta laguntza taldeak bultzatzen dute	Zuzendaritzak abiatu du prozesua	Zuzendaritzak abiatu du prozesua, eta jarraipena egiten du	Zuzendaritza taldeak funtzionamendu autonomo bat bultzatzen du, arduraren banaketa antolatuarekin eta kontrol sistematikoarekin
<b>Jarraikotasuna</b>	Aurretiazko esperientzia batzuk badira	Prozesua abiatzen ari da	Esperientzia berria da ikastetxe honetan	Ikastetxearekin batera ari da umotzen prozesua	Esperientzia errotua dago ikastetxean
<b>Ebaluaketaren erabilpena</b>	Ebaluaketari garrantzia aitortzen zaio	Ebaluatzeko ahalegina egiten da	Helburuei zuzendutako adierazleren bat badago. Aldaketak aurreko esperientzietan oinarritzen dira	Adierazleak dira ebaluaketaren oinarri. Adierazle dokumentuetan oinarritzen dira hobekuntzak	Helburuei dagozkien adierazleak sistematikoki erabiltzen dira eta emaitzak helburu berriak zehazteko erabiltzen



## Auto-ebaluazioa eta auto-erregulazioa

Auto-ebaluazioa ariketa proposatzen da praktika gisa; ikastetxe bakoitzak erabakitzen du nola hartu distantzia programaren garapenarekiko, haren gainean lan egin, objektibizatu eta norberaren aukera eta mugak ikuskatzeko; eta, ikuspuntu horretatik, eguneroko jardunean sumaezina ikusi ahal izatea. Auto-ebaluazioak gutxienez bi oinarrizko baldintza bete behar ditu: bata, egindako ekintzak objektibizatzeko gaitasunarekin lotua; bestea, erantzukizun eta konpromisoarekin lotua. Zentzu honetan, auto-ebaluazioak ekintzen analisisiaz hausnarketa prozesu erabilgarri bat errazten du, Eskolako Agenda 21 programaren testuinguruan.

Auto-ebaluazioa ariketak ikastetxeko auto-erregulazio praktika bilakatzea nahi du, egin denaz edo egiten ez denaz kontzientzia hartzen laguntzen duen neurrian. Plangintza hobek egiten ere lagunduko du, denbora egoki erabiltzen, akatsak kudeatzen; baita proiektua hobetzeko estrategia desberdinak erabiltzen; programaren helburuei eta ebaluaketa irizpideei berriro heltzen; autonomia handitzen eta egindako lanaz harro egoten.

Item bakoitzari 1 eta 10 puntu arteko balioa eman behar dio ikastetxeak, irizpidea nola bete den adierazteko. Guztira, 1.000 puntu dira gehienezko puntuazioa.

Item bakoitza emandako balio-ebidientzia batekin lagundu behar da; hau da, ekintza, ideia, egitura, arduradun edo akordioen erreferentzia bat... agiri bat edo batzutan jasoa, non kontsulta egin daitekeen kontrastatzeko, emandako eskala justifikatzeko. Era askotako agiriak izan daitezke: Hezkuntza Proiektuak, ikastetxeko curriculumak, bileren aktak, Eskolako Agenda 21eko dokumentazio propioa...

Azken puntuazioa (batuketa), estandar honen arabera alderatu daiteke.

- **Ikastetxe hasiberria (250-eraino):** Hau da programaren lehen urratsetan ari diren ikastetxeen egoera, hezkuntza eta ikastetxearen eta inguruaren jasangarritasuna hobetzeko praktketan hasi direnen egoera.
- **Ikastetxea martxan (250-500):** Programaren garapenean esperientzia eta malgutasuna lortzen ari diren ikastetxeen portaera deskribatzen da. Hezkuntza berrikuntza finkatuz doa.
- **Ikastetxe aditua (500-750):** Jasangarritasunerako bidean, hezkuntza kalitatea hobetzeko programa modu eraginkorrean erabiltzen ari diren ikastetxeen egoera. Hezkuntza berrikuntza nahiko finkatua dago.

- **Eskola jasangarritasunerantz (750–1000)**: Egoera honetan dauden ikastetxeetan, jarduteko alor berriak esploratzen ari dira; antolakuntza eta funtzionamendua egokitzen; aldaketak ezartzen egiturara, kudeaketara, irakaskuntza prozesuetara, ikasketetara, eta udalerririkiko harremanean, programaren helburuek markatutako norabidean.

## Auditoria

*Eskolako Agenda 21eko Ebaluaketa Batzordea* osatzen dute Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak, Biodibertsitateko eta Ingurumen Partaidetzarako zuzendaritzak, Ingurugeletako zuzendaritzak, eta ingurumen hezkuntzan adituak (Udalsarea21, Unesco Etxea, Unibertsitateko irakasleak...). Bere egitekoa da ikastetxeen dokumentazioa eta esperientziak ebaluatzea, eta proposamenak egitea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari "Jasangarritasuneko Eskola" agiriak emateko.

Ikastetxeen proposamenak ebaluatu eta bisitak egiten ditu Eskolako Agenda 21eko Ebaluaketa Batzordeak. Bere analisiak honakoetan oinarritzen dira:

- Ikastetxeak betetako auto-ebaluazio galdetegia:
  - Puntuazioa nolako koherentziarekin justifikatzen den.
  - Horien oinarri diren ebidentzien sendotasuna.
- Eskolako giroa:
  - Eskolako Agenda 21 hezkuntza komunitatean ezarri den maila.
  - Eskolako Agenda 21en ikusgarritasuna ikastetxean.

## Lehenbiziko "Eskolak jasangarritasunerantz"

2007–2008 ikasturtean egin zen ebaluaketa sistemaren lehen esperientzia, proba gisa.

Probako esperientzia honetan, lehenengoko "Eskolak jasangarritasunerantz" aintzatetsiz gain, sistema probatu nahi zen, kalitate irizpideen balioa eta fida-garritasuna balioztatzeko. Esperientzia ugari egin ziren horretarako, agente desberdinekin, alderaketak eta ebaluaketak eginez garapen fase desberdinetan: diseinuan, ezarpen metodologian, praktika abiatzean...

Prozesu honen ondorioak kontuan hartu ziren bigarren ekitaldian, 2008–2009 ikasturtean burutu dena.

Programako ikastetxe beteranoenek izan zuten aukera proba bietan aritzeko, eta haietatik irten dira lehenbiziko 39 "Eskola jasangarriak!", 25 lehenengo deialdian eta 14 bigarrean.



1. 2009an Eusko Jaurlaritzako Terminologia Batzordeak jasangarri terminoa onartu zuen iraunkorren orde.



## 5.

## Ebaluaketa sistema: kalitate irizpideak

1. Kalitatea jasangarritasuneko hezkuntzan
2. Testuingurua: Eskolako Agenda 21
3. Ebaluaketa sistema: zergatia eta helburuak
4. Ebaluaketa sistema: edukiak eta prozedura

## 1. Jasangarritasuna

Jasangarritasuna hitza erabiltzen da euskeraz ingeleseko *sustainability* hitza itzultzeko. Latinean du jatorria, *sus tenere* terminoetan: gorde eta defendatu esan nahi du. Euskaltzaindiak, gaur egun, *jasangarri* eta *jasangarritasun* terminoak gomendatzen ditu, *sustainable* eta *sustainability* adierazteko. Kontzeptuak zera esan nahi du, inguru jakin batean, baliabide biofisiko, ekonomiko eta sozialak erabili behar direla inguru geografiko horren eraberritzeko gaitasunaren arabera, eta erabilpen horrek balio behar du, ez bakarrik gaurko belaunaldientzat, baizik eta etorkizunekoentzat ere, haien artean ere onurak eta beharrezko premiak beteta egon daitezen.

Jasangarritasunak oinarrizko bi kontzeptu hartzen ditu: bata dira *premiak*, beziki munduko alde behartsuenetako premiak (lehenetasuna behar lukete horiek), eta bestea *mugak*, gure planeta mugatuaren naturaren mugak.

Ez dago jasangarritasunerako errezetarik, eta jasangarritasuneko ingurumen hezkuntzan ere ez dago. Ekintza-hausnarketa, auto-ebaluazioa eta ikerketa dira metodoa jarduerak garatzeko alor honetan.

Eskolako Agenda 21en, jasangarritasuna helmuga da, eta harantz gerturatu behar dugu, urratsez urrats, heziketa prozesuan ezagutza, prozedura eta jarrerak landuz; gainera, hezkuntza-komunitateak eskolako eta herriko bizitzan inplikatu behar du, eta kudeaketan ere arduratsu jokatu behar da natura-baliabideak kontsumitzeko, produktu eta zerbitzuak erabiltzeko eta sortzen diren hondakinak tratatzeko.

Ingurumen-sentsibilizazioan du oinarria jasangarritasunak. Hau da, natur ingurunea gure bizitzaren parte dela sentitu eta gozatu, enpatia izan izaki bizidunekin, eta gu ere planeta honen parte garela sentitu, jakinaren gainean baliabideak mugatuak direla, eta arretaz kudeatu behar ditugula.

Jasangarritasuneko heziketak ekintza praktikoak eskatzen ditu, eta ohiko bihurtu diren eta ezarritako jardueren gainean hausnarketa egin behar da, gero erabakiak hartzeko.

Hausnarketaren ondorioak erabaki bihurtuko dira eta erabaki horien helburuak ez dira horrenbeste begien bistako emaitzak, baizik eta ikasketa prozesua eta ikasleen konpetentziak: pentsaera konplexua eta kritikoa, begirunea, baloreen zehazpena eta argitzea.

Pentsaera kritikoarekin ez dugu esan nahi negatibismoa, baizik eta ikuspegi globalak lantzea, aukerak, soluzioak eta bideak modu irekian eta sormenarekin lantzea, beste toki eta garai batzuetako erreferentzia arrakastatsua bilatuz.

Are gehiago, baloreen argitzea giza-aniztasunaren errespetu baloreen oinarritzen da eta balore berriak aurkitzeko beste alor batzuetan aplikatu behar dira. Gaur egungo jarrera moral hedatua dugu "hemen eta orain" jardutea, axolarik gabe zer gerta daitekeen "beste nonbait eta etorkizunean". Gehitu horri irudikeria eta kontsumismorako estimulua. Gozamina edo onura ematen digun guztia ez da ona edo posiblea. Hausnarketa horixe, naturarekin dugun harremana ikuspegi etiko berri baten argitan berrikustea, oinarrizko zutoina da ingurumen hezkuntzarako. Zaila da baloreak aldatzea edo transmitzea. Baloreok negoziatzen eta eraikitzen ahalegin jarraitua behar da. Gure gizartean sarri nahastu egiten dira baloreak, iritziak eta erabakiak, eta horien artean bereiztea ez da prozesu erraza ikasleentzat.

Eskolako giroan eta hezkuntza-komunitatearen parte hartzean eragin positiboa izan dezake jasangarritasuneko hezkuntzak. Adibidez, ikasle eta irakasle berriak datozenean, haienganako arreta hobetu daiteke harrera protokolo bat badugu, elkarbizitza planaren parte bada, hezkuntza-komunitateko estamentu guztietara iristen bagara, eskolaz kanpoko ingurumen kanpainetan parte hartzen badugu, edota agerikoa egiten bada ikastetxeak ingurumenarekin duen konpromisoa. Alderantziz ere, eskolako giro ona pizgarria izan daiteke ingurumen hezkuntzarako, jasangarritasunarekiko jarrera jator, abegikor eta kontsekuentea bada.

Eskolako Agenda 21erako garrantzitsua da halaber eskola-komunitateko partaide guztiak jakitun izatea zein den beren papera eta ekarpena. Langile ez irakasleak,

familiak eta irakasleak ezinbestekoak dira egunero errespetua lantzeko, eskolako baliabideak zaintzeko, arau demokratikoetan konfiantza eta giro ona izateko ikasleei eskainitako harreman eta irakaskuntzan.

Alor hauetan adibide onak izan daitezke ordu-tegi kointzidentzien gaineko akordioak auto-formaziorako eta hausnarketarako, harrera protokoloak, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan jasotako oinarriak, edo ikastetxeen ideia-egitasmoak, horiek bat badatoz jasangarritasunarekin eta ingurumenarekiko errespetuarekin.

Era berean, garrantzitsua da aldiro ikastetxeko giroaz eta funtzionamenduaz hezkuntza-komunitateak duen iritzia jasotzea.



## JASANGARRITASUNA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

	Kalitate irizpideak	Balioa
<b>1.1 Sentsibilizazioa</b>	1. Ingurumen arazoei buruzko sentsibilizazio-plana badago.	
	2. Komunikazio eta informaziorako bide argiak daude ezarriak, adin eta estamentu desberdinentzat egokiak.	
	3. Landu egiten da: gizakia biosferaren parte izatearen ikuspegia, natur ingurunearen balorazioa eta naturaren gozatzeko arduratsua.	
	4. Ikastetxeak ikasleen motibazioa sustatzen du Eskolako Agenda 21en parte hartzeko.	

Ebidentziak:

	Kalitate irizpideak	Balioa
<b>1.2 Hausnarketa</b>	5. Ikastetxearen dokumentuetan, misioan, plangintza estrategiko edo politikoan, jasota daude jasangarritasunaren inguruko hausnarketa eta planteamendu etikoa.	
	6. Irakasle guztiek dute denbora eta toki jakin bat sistematikoki ezarria hausnarketa egin dezaten jasangarritasunaz, Eskolako Agenda 21ez, ingurumen hezkuntza eta didaktikaz.	
	7. Kontuan hartzen dira jasangarritasunaren oinarritzko kontzeptuak (premiak eta mugak), eta helburuak (gaurko eta etorkizuneko premiak bete), ikastetxearen antolakuntzaz eta kudeaketaz erabakiak hartu behar direnean.	

Ebidentziak:

	Kalitate irizpideak	Balioa
<b>1.3 Baloreak argitzea</b>	8. Hezkuntza Proiektuan edota beste dokumentuetan zehatz aipatzen dira balore hauek: bidezko gizartea, ingurumen osasuntsua eta hiritartasun aktiboa.	
	9. Tutoretza planean tokia egiten zaio EA21eko gaiei, ikasleen izaera eta baloreei, Giza Eskubideei eta gure gizarteko aurreiritzi eta estereotipoei.	
	10. Errespetua da balore nabarmenetako bat ikastetxearen helburuetan: errespetua pertsonari bereziki, eta oro har izaki bizidunei.	
	11. Landu egiten da, bai egunerokotasunean zein asanblada, gatazka eta abarretan, ikasleak beren kasa pentsatzeko gai izan daitezen, arazoaren gaineko informazio, iritzi eta ikuspuntuez kritiko izan daitezen.	
	12. Ingurumena babesteko kontsumo eta bizimodu pertsonaleko ohiturak aldatzeko borondate ona baloratzen da.	

Ebidentziak:



	Kalitate irizpideak	Balioa
<b>1.4</b> <b>Eskolako giroa</b>	13. Eskolaz kanpoko ingurumen kanpainekin harremana du ikastetxeak: kohesio eta aldaketa soziala bilatzen dutenak, erakunde eta GKEek bultzatuak (UNESCO, Intermon-Oxfam, Greenpeace, Ekologistak Martxan...).	
	14. Ikastetxeko ingurumen konpromisoak elkarbizitza planean eta ikastetxeko barne arautegian (AJA) batzen dira eta harrera protokoloan ezagutarazten dira.	
	15. Ikastetxeko giroa zaindu egiten dela erakusten duten estrategia, intentzioa edo ekintzak egon badaude.	
	16. Estamentu desberdinek ikastetxeaz duten satisfazio maila (ikastetxea toki atsegin eta zirrargarria dela) eta ikastetxearen ingurumen jarduerak neurtu egiten da aldiro.	
	17. Jasangarritasuneko hezkuntzarekiko konpromisoa idatzia dago: zuzendariak sinatua, edo arau edo dekalogo batean jaso, ikasleen adinera egokitua. Eta idatzi hori jakina eta publikoa da, eta nabari egiten da ikasgeletan eta ikastetxeko gainerako geletan, baita kanpoaldean, kudeaketan eta antolatuturiko jardueretan ere.	

Ebidentziak:

## 2. Konplexutasuna

Konplexutasuna oinarrizko kontzeptua da jasangarritasuneko ingurumen hezkuntzan. E. Morin-ek eraiki zuen konplexutasunaren paradigma, aurre egiteko planteamendu sinplistei, ikuspegi murriztaileei eta egi absolutuei. Batasuna eta aniztasuna bateratzen dituen ikuspegia da konplexutasuna. Ikuspegi integratzailea da, antolakuntzaren premia du ondorio, harremani arreta eskaintzen die, dimentsio anitzekoa da, irekia, zalantzak onartzen ditu, eta zientzia desberdinen, baita filosofiaren eta zientzia politikoaren mugez ikusmiran kokatzen da.

Ideia nagusia zera da, mundu konplexua dugu, eta ingurumen arazo konplexuak, eta pentsamendu konplexua behar dugu sinplekeria (erredukzionismoa, sinplifikazioak, kausa-eragin linealak) gainditzeko. Konponbide sinpleek zerbait konpon dezakete, baina ez osotasuna. Konponbide global eta integralak aurkitu behar dira, sistemaren harreman eta elementu guztiak barne hartuko dituztenak.

Dominoko pieza mordoia zutik: horrelakoxea da mundua. Pieza bakoitza Biosferako parte bat da, planetaren atal biziaren zati bat. Pieza bat eroriz gero, beste asko ere behera doaz. Elementu bati zerbait geratuz gero, norabide eta une desberdinetan ditu ondorioak horrek: lehenbizi hurbileneakoak erortzen dira, gero urrunagokoak. Konponbideak proposatzerakoan, pieza bat ondo jarri nahi dugunean, kontuan hartu behar dugu horrek eragin baikor edo/eta ezkorrak izan ditzakeela inguruan daudeneztat.

Konplexutasunaren kultura eraikitzeko protagonismo handia behar luke izan hezkuntzak. Zenbait aukera jadanik lantzen dira ikastetxeetan:

- A) Ikuspegi sistemikoa:** Elkarreragin hauei arreta eskaini: izaki bizidunen artekoak, bizidun eta natur gertaeren artekoak, gizakiek eragindako gertaerekiko. Eragin eta harreman horiek gertatzen diren guzti eta sasoiei kasu egin, ikusmira historikoa izan, ondorio lokal eta globalak kontuan hartu.
- B) Etorkizuneko ikuspegia:** Dibertsitate eta mugez arreta eskaini, etorkizuneko aukerak pizten zaizkigu, sormen eta irudimenaren bidez elkartasuneko etorkizun-eszenarioak eraiki. Uneoro hasten da etorkizuna, orain egiten dugunaren baitan eraikitzen da.
- C) Mugez eta zalantzez kontzientzia:** Planeta eta natur baliabideak ez dira agortezinak, ziklo biologikoez denbora behar dute, sistema konplexu natural zein sozialen garapena ezin da aurrez jakin, arriskuak...

Arazoak poliedrikoak izan ohi dira, alde eta ertz askotarikoak. Segun eta noren laruan jartzen garen, desberdin ikusiko ditugu: administrazioa, enpresa, familia elkarteak, ekonomia, erretiratuak, teknologia, irakasleak, politika, haurtzaroa...

Ez da horrenbeste ikuspegi guztiak aztertzea, baizik eta ikasleak jakitun bihurtzea, konplexutasuna existitzen dela, eta horrek behartzen gaituela, ingurumen arazoak aztertzean, arazoen ondorio anitzak (ekologiko, sozial, kultural, ekonomikoak...) kontuan hartzea. Konponbide eta alternatibak proposatzean ere, interes eta ikuspuntu anitzak hartu behar dira kontuan, eta proposamenak elkarrizketan negoziatzeko prest egon.

Jasangarritasunaren ingurukoak gai eztabaidatsu eta zailak dira, horregatik landu behar dira desadostasunak, konplexutasuna eta interesen desberdintasuna.

Konplexutasuna lantzeak dakar kompetentzia zientifikoak eta humanistikoak lantzea, ikasten ikastea, informazioa tratatzen jakitea, pertsonaren ekimen eta autonomia propioa garatzea ere. Baina, ororen gainera, herritar-kompetentziak lantzea. Euskal curriculumak dioen bezala, kompetentzia horri esker uler dezakegu gizartearen errealitatea, herritartasun demokratikoa sentitu, elkarlanean eta elkarbizitzan, gizarte anitz batean aritu, haren hobekuntzan konpromisoa hartuz. Kompetentzia honen barruan trebetasun eta ezagutza konplexuak sartzen dira, eta horiekin ahalbideratzen dute parte hartzea, erabakiak hartzea, portaerak hautatzea eta hautu pertsonalen ardura hartzea.

Konplexutasuna lantzeko estrategia egokiak, eta ebidentzia balekoak, honako hauek dira: eztabaidak, simulazio jokoak (ingurumen arazo bateko interes desberdinak antzeztu), dilemak aurkeztu (bi aukeren artean hautatu, argudioekin), kontzientzia bilatu, hedabideetako albisteak landu eta kontrastatu.

Jasangarritasunera bidean dagoen ikastetxeak jarrera irekia du; proposamenak jaso egiten ditu, horretarako protokoloa edo erregistroa du, askatasun; konfiantza eta segurtasuna eskaintzen du ekarpenetarako; proposamenak errazten ditu; eskolaren eta eskolaz kanpokoaren artean elkartasuna sustatzen du.

## KONPLEXAUTASUNA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

	Kalitate irizpideak	Balioa
<b>2.1 Konplexuta- sunaren kultura</b>	18. Ikuspegi desberdinetatik lantzen dira ingurumen arazoak, gure garapen ereduko ekoizpen eta kontsumo joeren inguruko interes anitzak sorturikoak.	
	19. Ingurumenaz dakiguna, horren eraikuntza soziala, ez dago oinarritua egia absolutuetan, baizik eta zalantzan, kritikan, zorian, ziurgabetasunean...	
	20. Inguruko giza-aniztasuna (ideiak, kulturak, erlijioak) eta biodibertsitatea (ekosistemak, espezieak...) aberasgarritzat baloratzen ditugu.	
	21. Ingurumen arazoetako elementuen elkarreraginak kontuan hartzen dira: ekonomia, ekosistemak, gizartea...	
	22. Ikusmira lokal eta globala lantzen dira, hau da, norberaren inguruan bizi eta ikasitakoa, eta hartutako ingurumen erabakiak, kontrastatu egiten dugu beste toki eta garai batzuetan gertaturikoarekin.	

Ebidentziak:

	Kalitate irizpideak	Balioa
<b>2.2 Etorkizuneko ikuspegia</b>	23. Ingurumen arazoak tratatzean kontuan hartzen dira ikusmira historikoa, giza-jarduerak eragindako oraingo egoera eta etorkizunerako eszenarioak.	
	24. Ingurumen arazoen gizakiengan eragindako ondorioak aztertzen dira, bereziki haurren (pobrezia, osasuna, heziketa...).	
	25. Ingurumen arazoak aztertzean ingurune soziala ere kontuan hartzen da, eta aurre egiteko orduan elkartzasuna eta irudimena lantzen ditugu.	

Ebidentziak:

	Kalitate irizpideak	Balioa
<b>2.3 Alternatibak proposatu</b>	26. Alternatibak aurkezterakoan jokoan dauden interes sozial eta ekonomikoak kontuan hartzen dira, eta arrazoi kultural eta politikoak ere bai.	
	27. Eskolako komunitateko partaideen proposamenak batu eta adosteko protokolo edo metodo sistematiko bat badago.	
	28. Herritar konpetentzia lantzen da, eta parte-hartzerako teknikak eta jarrera afektiboa (entzutea, errespetua, keinuak...).	
	29. Agente guztien beharrak kontuan hartzen dira, eta haiek askatasunez eta konfiantzan egin ditzakete ekarpenak.	
	30. Ikasleen ekarpen eta alternatibek aldatu egin dute edo aldatzen dute ikastetxearen antolakuntza eta antolamendua, eta horietan gero eta parte hartze eta elkarlan handiagoa dago.	

Ebidentziak:

### 3. Prozesua

Jasangarritasunaren kulturak giro egokia eskatzen du: elkartrukatzeko, eztabaida eta elkarriketarako, ekintza eta parte-hartzerako. Beraz, antolakuntza behar da; egitura eta funtzionamendu jakin bat, gune, denbora, jarraibide eta baliabideak eskainiko dituen programa garatzeko. Ikastetxeen antolakuntza tradizionalak ez du proiektuen garapena oro har laguntzen; are okerrago, sarri oztopo handia ere bada. Hainbatetan, antolakuntza zurrun eta "betikoak" gidatzen du ikastetxearen ibilbidea, eta alderantziz behar du, antolakuntzak egokitu errealtate, premia eta proiektu berrietara. Antolakuntzak baliabide dinamikoak izan behar du, ikastetxearen hezkuntza helburuen zerbitzura, eta ez kontrakoa. Jasangarritasuneko hezkuntzan antolakuntza eta prozesuak ikuspegi partekatuak gidatu behar ditu: antolakunde-egitura zurrunak malgutu behar dira, eta prozesuen ezaugarrietara moldatu behar dira.

Ez dago zertan ikastetxearen memoria ahaztu. Urtez urte esperientzien argitan landu eta dokumentaturiko kultura hori oinarri izango da, haren gainean eraikitzeko ekarpen berriak, hausnarketak eta berrikuntzak. Dokumentazio hori izango da halaber komunitate didaktikoari berrikuntzak jakinarazteko oinarria, argitalpenen bidez, eta biltzar eta lehiaketetan parte hartzen.

Zuzendaritza taldeak egitura eta antolakuntzako prozesuak erraztu behar ditu: helburu, prozesu eta ebaluazioaren ulermena partekatu; estamentu guztiak inplikatu, nora joan nahi den adostu. Zentzu horretan, hobeak dira norabide egokian urrats txiki eta gutxi batzuk ematea, ez urrats handiegi eta iragankorrrak. Eta aurretako urteetatik esperientzia badugu, haien emaitzetatik abiatu behar dugu. Ingurumen hezkuntzako programa garatzeko funtzionamendu egokia ezarri eta antolatu dugunean, irakaskuntza-ikasketa prozesuan murgilduko gara, eta horren barruan, metodologia, ebaluazio eta emaitzetan kontzentratuko gara.

Jasangarritasunak herritar aktiboak eskatzen ditu, sortzaile eta kritikoak, ingurumen arazoan aurrean gaitasunez jantziak; gai direnak bateratzeko kontzeptu eta ekintzen gaineko jakintzak, prozedurak, jarrerak eta baloreak; kausa eta efektuetan pentsatzeko gai, konponbide berritzaile eta sortzaileak proposatu eta bideratzeko gai.

Honek eskatzen du ikasketa prozesuaren erdigunean ikaslea jartzea, (eta ez edukiak, ezta ere irakasleak). Ikasleari behar duen testuingurua eman behar zaio bere

kompetentzia, ideia, balore eta itzaropen propioak garatzeko. Ikaslea protagonista bihurtzeko eskatzen du bere ezagutza propioen eraikuntzan subjektu aktiboa dela ulertzea.

Eskolako Agenda 21 mende honetako hezkuntzaren erronka handiekin uztartua dago: gizartea eraberritzeko hezkuntza, heziketa kritiko–demokratikoa, jasangarritasuneko ingurumen hezkuntza, aniztasunerako, gizarterako (osasuna, generoa, kultura...), parte hartze aktiborako, ikasketa komunitateetarako... Programak honako kompetentzien garapena errazten du: ekintzarako gaitasuna, kausa eta efektuen ulermena, konplexutasuna, testuinguruarekiko arreta, azterketa etikoak, ikuspegi sistemikoak, ezagutzaren eraikuntza. Baita ere planetaren parte garela sentitzea, emantzipazioa, benetako parte hartzea, egoera eta material egiazkoak, ekintza funtsezkoa eta funtzionala eskaintzen ditu.

Prozesuaren ebaluazioa barne–hobekuntzako mekanismo gisa ulertu beharra dago. Horregatik, helburua argi azaldu behar da, estamentuen artean demokratikoki adostu, eta kontuan hartu faseak, ardatzak eta azken emaitzak. Eskolako Agenda 21 programak helburuen betetze–mailarako adierazleak proposatzen ditu. Hasieran ez dira errazak erabiltzeko, kontu berri samarra delako ikastetxeetan, baina denborarekin haren inguruko baloreak agerikoak bihurtzen dira.

Gogora dezagun helburu nagusia ez dela horrenbeste emaitza, baizik eta ikaskuntza eta ikasleen gaitasunen garapena. Ondorioz, emaitzarik agerikoenak, seguruenik, kudeaketan gertatuko dira. Hor neurtu behar ditugu esperientziak eta ekarpenak, alor hauetan adibidez: bidezko merkataritza, jasangarritasuna kontuan duten erosketak, biodibertsitatearekiko arreta, garraio jasangarrira, osasuna. Emaitzak onak edo ez hain onak izan daitezke, baina ez dugu etsipena eragin behar ikasleengan, eta aldaketak balioztatu behar ditugu, ahalegina, norberak edo taldeak ikasitakoa... Sarritan, emaitza onak lortzea baino zailagoa da aurreko ikasturteetako eustea, eta hori hausnarketarako abiapuntu izan daiteke ikasleen artean, eta eskola osoan ere bai.

Emaitza ona da Eskolako Agenda 21 proiektuak urteen buruan ikastetxean lortzen duen finkapena.

## PROZESUA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

	Kalitate irizpideak	Balioa
<b>3.1</b> Antolakuntza	31. Proiektua garatzeko azpiegitura ezarri du ikastetxeak, eta horrek hartzen ditu Ingurumen Batzordea eta beste azpitalde batzuk, eta hauek osatzen duten sarearen bidez hezkuntza komunitate osoak du aukera parte hartzeko eta komunikatzeko Eskolako Agenda 21aren baitan.	
	32. Zuzendaritzak konpromisoa du Eskolako Agenda 21ekin, Ingurumen Batzordean parte hartzen du, haren kudeaketa bermatu, baliabideak, tokia eta denbora bermatu, eta bere gain hartzen du zabalkundea administrazioen eta hezkuntza komunitatearen aurrean.	
	33. Ikastetxearen antolakuntzak bermatzen du toki eta denbora bermatua izango dutela honako jarduerak: irakaskuntza, ikasleenganako eta familienganako arreta, Eskolako Agenda 21 proiektuaren eta irakasle-arteko koordinazioa.	
	34. Proiektuaren dokumentazioa ondo antolatua dago, eta eskura du hezkuntza komunitateko edozein partaidek.	

Ebidentziak:

	Kalitate irizpideak	Balioa
<b>3.2</b> Metodologia	35. Eskolako Agenda 21 egitasmoaren helburuak argiak eta zehatzak dira, eta ikasle, irakasle eta hezkuntza komunitateko beste partaideek ezagutzen dituzte.	
	36. Eskolako Agenda 21en fase eta metodologia ondo bereziak eta garatuak daude, eta haien arteko komunikazioan ahalegina egin da.	
	37. Ekintza Planaren jarduerak pedagogikoak dira, ez daude soilik ingurumen arazoak konpontzera zuzenduak eta kontuan hartzen dituzte, izatea, ezagutza, egiten jakitea eta baloreak.	
	38. Eskolako Agenda 21 testuinguru desberdinetan agertzen da: ikasgeletako programazioan, ikasgai edo alor desberdinetan, Hezkuntza Proiektuan.	
	39. Eskolako Agenda 21ek sustatzen dituen balore etikoak kontuan hartzen dira: berdintasuna, justizia, erantzukizun pertsonal eta kolektiboa.	
	40. Eskolako Agenda 21 programaren Ekintza Planean desberdindu egiten dira 3 ardatzak (curriculum, parte-hartzea, kudeaketa jasangarrira) eta ekintzen izaera (zer, zertarako, nola, noiz).	

Ebidentziak:

Kalitate irizpideak		Balioa
<b>3.3 Ebaluaketa</b>	41. Eskolako Agenda 21en helburu edo jomuga, zertarako ebaluatzen den alegia, argi azaltzen da proiektuan.	
	42. Ebaluaketarako adierazleak helburuekin batera ezartzen dira, eta al-daketa eta hobekuntzak neurtu eta baloratzeko erabiltzen dira	
	43. Agente guztiek hartzen dute parte ebaluaketan, eta horrek hartzen ditu, ikasleen ikasketa, irakasleen jarduera, zuzendaritza funtzioak, eta ikastetxeak Eskolako Agenda 21en baitan duen funtzionamendua.	
	44. Ebaluatzeko orduan kontuan hartzen dira, Eskolako Agenda 21eko diagnostiko, prozesu eta emaitzak, eta baita ikastetxearen parte-har-tze demokratikoa ere.	
	45. Proiektuaren helburuak ezartzean, jarraipena egiten da aurreko ikasturteetako konpromiso eta adierazleen emaitzetatik abiatuta.	

Ebidentziak:

Kalitate irizpideak		Balioa
<b>3.4 Emaitzak</b>	46. Ikastetxeak erosketa berdeen plana du, kontsumo jasangarrira prak-tikatzen du, edo bidezko merkataritza sustatzen du.	
	47. Ikastetxeak bere baliabide (ura, papera, energia...) zein hondakinen kudeaketa jasangarrira burutzen du, ikasturtez ikasturte izandako aldaketak eta lortutako hobekuntzak erregistratu egiten dira eta beraien jarraipena egin egiten da.	
	48. Ikastetxeak ekintzak sustatzen ditu alor hauetan: garraio jasangarrira (eskola-bidea, bizikletak, garraio kolektiboa), biodibertsitatea (esko-lako baratza, berdeguneak...), osasuna (dietak, kirola, afektibotasuna), justizia soziala eta aldiro ebaluatzen dira.	
	49. Ikastetxeak artikulua, liburu edo txostenen bat argitaratu du azken lau urteetan, edo sari edo aipamen bat jaso izan du.	

Ebidentziak:



## 4. Parte hartzea

Jasangarritasunaren oinarri garrantzitsuenetakoa da parte hartzea. Eta parte hartzearen ideia lotuta dago demokraziaren ideiarekin. Helburu eta erantzukizunak partekatzea esan nahi du, taldeari eragiten dioten ekintzetan inplikatu helburuok lortzeko. Ekintza jakin bat, bere horretan, aldaketarako helburu bat da. Nolanahi ere, parte hartzea ez da berez pertsoneri sortzen zaien dohaina, baizik eta zenbait faktoreren arabera garatzen den konpetentzia: norberak landutako trebetasun eta baloreak, hezkuntza metodologia, ikastetxeko giroa, tratatu beharreko arazo zehatzaren ezaugarriak...

Ikasleei dagokienez, proposatutako jarduera eta ekintzak oinarritu behar dira beraien aurretiazko esperientzia, ideia eta itxaropenetan, eta baita beraien inguru hurbil eta errealean. Horrek interes, motibazioa eta parte hartzea erraztuko du, ezaguna eta hurbila baitzaio gaia... gero abstrakzio handiagoetara igarotzeko.

Baina jarduerak egiteak ez gaitu eraman behar aktibismora. Aktibismoak esan nahi du, ikaslea nahikoa motibatua badago ekintzarako, ekite hutsak aztertutako errealitatearen egiaz jabetzera eramango duela. Noski, hori ez da horrela. Ekintzak zentzua du bakarrik hausnarketaren batera badoa: "lehenago eta geroago" (hasierako eta amaierako faseak) kontuan hartzen badira, aurreko ezagutzei berriak gehitzen bazaizkie (ezagutza eraiki), kausa eta efektuak aztertzen badira (konplexutasuna), prozesuak errepasatzen badira erabilitako trebetasun eta ezagutzak aztertuz (meta-ikasketa), funtzionamenduaz kontzienteki jabetzen bada eta bere jarrera moldatu (auto-erregulazioa), egindakoa komunikatzen bada (irakaskuntza esanguratsua), testuinguru berrietan aplikatu badaiteke (funtzionalitatea). Hori guztia, batere dogmatismorik gabe.

Horrek guztiak erronka hau dakar irakasleentzat: ikasleei protagonismoa eman. Ingurumen hezkuntzan honek esan nahi du gune eta baliabide zehatzak eskaintzea ikastetxeko erabakietan parte hartzeko, ikastetxearen konpromisoetan inplikatzeko, ikasleen artean ekarpenak adostu edo eztabaidatzeko (ikasgelan edo talde zehatzetan), ekintza zehatzak burutzeko (lorategi eta jolastokiak zaindu, konpromisoen jarraipena egin, sensibilizazio edo salaketa kanpainak...), eta abar.

Jasangarritasuneko bidean dagoen ikastetxean, irakasleek ikasketa prozesuaren erdigunean kokatu dituzte ikasleak. Irakasleak prest daude eztabaida sustatzeko, ikuspuntu desberdinak entzun eta kontuan hartzeko, konponbideak adosteko, ikasleen parte hartzerako trebetasunak hobetzeko. Halaber, parte hartzea

baloratzen da, positiboki diskriminatu, ekintza proposamenak kudeatu, eta parte hartzaileak aintzat hartu (agerikoa egin daiteke hori klaustroko akordioen bidez, ikasgelako programazioan, edo ikasleek autonomoki garatu eta diseinatu-tako ekintzen kontaketen bidez). Horrek ez du esan nahi ikasleei proiektuaren alderdi guztietan erabakimena eman behar zaienik. Parte hartzeko aukerak ematean balore handia dago, baina irakasleak dira gidari, proiektuaren kalitatearen arduradun.

Ez bakarrik ikasleek, eskolako beste estamentuek ere parte hartzea eskatzen du Eskolako Agenda 21ek. Pertsonal ez irakasleak, familiek, eta, jakina, irakasleek, antolakundearen egituran egon behar dute. Agente desberdinei gune eta baliabideak eskaini behar dizkie egitura horrek, beren parte hartzea posiblea eta benetakoa izan dadin. Demokraziaren ideala da, azken batean, eraiki nahi duen etorkizuna komunitateak berak planifikatzen eta garatzen duela.

Orain arte ikastetxearen edo zuzendaritza-taldearen ardura soila izan diren alorretara ireki behar da parte-hartzea: kontsumoa, erabilpenak, hondakinen kudeaketa... Ikastetxearen giroa hobetzea, eta bazterketa arriskuan dauden taldeenganako ardura ere bai (azken horien artean, etorkinak, etnia desberdinak, pobreturiko taldeak, osasun arazoak, kultura ezberdinak...).

Bestalde, inguru sozial eta naturalean, mundu errealean, gero eta txertatuago egon behar du eskolak eta horretara jo behar dugu: komunitate lokalaren garrantzian gero eta funtsezkoago izan. Alde honetatik, Eskolako Agenda 21ek sustatzen du Eskolen Udal Foroak sortzea, eta horietan ikastetxeetako ingurumen batzordeetan dauden ikasleek udal agintariei aurkeztuko dizkiete egindako lanak, aztertutako ingurumen arazoaren gainean hartutako konpromisoak, eta udalerriko arazook aztertzetik sortutako eskaerak.

Hartutako konpromisoen barne-jarraipena prestatu behar du ikastetxeak, eta baita ikasleen eskaeren ondorioz udalerrian eragindako aldaketan kanpo-jarraipena.

## PARTE HARTZEA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

	Kalitate irizpideak	Balioa
<b>4.1</b> Ekintzaren ezaugarriak	50. Ekintzen erreferentzia dira ikasleek dakitena (aurretiazko ideiak, esperientzia, ezagutzak...) eta gertuko inguruaren errealitatea.	
	51. Ikasketa eta analisisirako jardueretan denbora hartzen da hausnartzeko interakzioaren konplexutasunaz, eta ingurumenarekiko dugun erantzukizun pertsonal eta kolektiboaz.	
	52. Ekintzak askotarikoak dira, ekintzetan beharrezko diren trebetasunak lantzen dira (diseinua, ekitea, ebaluaketa...) eta oro har elkarlana bultzatzen dute, eta baita herritar gisa dugun gaitasuna eta parte hartzea.	
	53. Jardueretan sustatzen ditugu: jakin-mina, arrazoibide logikoa, jarrerara dogmatikoezikiko kritika ingurunekeo aldaketak aurreikusi eta aztertzean.	
	54. Ikasleek proposaturiko ekintzak kudeatzen dira.	

Ebidentziak:

	Kalitate irizpideak	Balioa
<b>4.2</b> Ikasleen ikuspegia eta protagonismoa	55. Ingurumen batzordean gehiengo osatzen dute ikasleek; eta parte hartu, proposatu eta erabaki egiten dute, modu autonomoan eta adostuan.	
	56. Ikasleek aukera dute parte hartzeko ikastetxeko erabaki prozesuetan eta konpromisoen jarraipenean.	
	57. Ekarpinak egin eta eztabaidatzeko guneak eta denborak dituzte ikasleek ikasgeletan, modu sistematikoan.	
	58. Ikasleen ordezkariak, edo Eskolako Agenda 21eko boluntario taldeek, gune eta denborak dituzte eskura, beren kasa elkartzeko.	
	59. Gertueneko ingurunearen, ikastetxearen inguruaren eta ikasgelaren zaintzaren diseinu eta antolakuntzan parte hartzen dute ikasleek.	

Ebidentziak:

Kalitate irizpideak		Balioa
<b>4.3</b> Hezkuntza komunitatea	60. Estamentu desberdinek parte hartzen dute Ingurumen Batzordean eta beste azpi-talde batzuetan.	
	61. Familiari partaidetza bermatzeko prozedura eraginkor bat ezarri-ta dago, Eskolako Agenda 21en benetan parte hartu dezaten. Zabal-kundea egiten da eta familiak animatzen dira Eskolako Agenda 21en sustatzen diren baloreen arabera joka dezaten, beren esparru propioan.	
	62. Hezkuntza komunitateak adostutako arau edo jardunbide egokiak ezarri dira ikastetxean, eta haien jarraipen eta ebaluaketarako den-nen parte hartzea errazten eta sustatzen da.	
	63. Parte hartzea sustatzeko orduan, kontuan hartzen dira alderdi prak-tikoak eta gozamenari dagozkionak.	
	64. Bazterketa arriskua bizi duten taldeetako kideen parte hartzea sus-tatzen da.	

Ebidentziak:

Kalitate irizpideak		Balioa
<b>4.4</b> Eskolen Udal Foroak	65. Eskolen Udal Foroan parte hartzen du ikastetxeak, eta baita aurretiazko jardueretan (eskolarteko foroak, jardunaldi teknikoak eta abar).	
	66. Udalarri egindako eskariak eta aurkeztutako konpromisoak jarraitzeko prozedura bat dauka ikastetxeak, udalerrian izandako aldaketa eta hobekuntzak neurtzeko.	
	67. Herri edo eskualdeko hedabideak erabiltzen ditu ikastetxeak bere plan, konpromiso eta ekarpenak zabaltzeko: prentsa idatzia, bertako irratia, Internet, telebista.	

Ebidentziak:

## 5. Elkarlana

Aurreko puntuekin (konplexutasuna, parte-hartzea) oso lotuta dagoen elementua dugu elkarlana, kooperazioa. Estrategia metodologikoa da, pertsona talde batek helburu partekatuak lortzeko zeregin batzuk proposatu eta burutzeko. Segun eta talde horri zein ezaugarri edo zio eskaini, termino desberdinak erabili ahal izango ditugu: talde-lana, auzolana, kooperazioa... Elkarlanaren ondorioz, heziketan interakzio aberasgarriak gertatzen dira: garapen psikologiko-afektiboa eta sozio kulturala sustatzen da, berdinen arteko ikasketa, sozializazioa, autonomia eta onarpena, aurreakuntzarako itxaropena, errebisio eta doiketarako aukerak, eta, jakina, motibazioa.

Eskolako Agenda 21ek berdinen arteko elkarlana errazten du hezkuntza komunitateko estamentu bakoitzaren barruan, eta ez-berdinen artekoa ere bai, estamentu desberdinetakoak elkartzen direnean taldeetan. Berdinen arteko taldeetan, kontuan hartu daiteke homogeneotasun eta heterogeneotasuna ikasketa maila, estilo eta erritmoan. Batetik, pertsona nagusiek ikasleen ekarpenei arreta eta denbora eskaintzen dietenean, ikasleek konfiantza soziala eta auto-estimazioa garatzen dute. Bestetik, egoera hauetan elkartasuna lantzen da naturalki, eta hori, egoki landuz gero, ingurumen arazoek konponbideen parte bihurtu daiteke.

Tradizionalki, ikasgela barruko talde-lana baztertuta egon da zenbait jakintza-arloak edo irakasgaiak. Baina honela lan egiteak duen balorea beste guztietara zabaltzea garrantzitsua da.

Ikasturteak aurrera doazela, zenbait talde sendotzen direla igarriko da, konprometituak beren jardunbide programarekin, haien garapena sendo bideratzen. Horregatik, ikastetxeko proiektuen finkapenerako beharrezkoa da, ez bakarrik koordinazio efikaza, baizik eta proiektuen artean helburu, eduki eta metodologiak partekatzea, hauen arteko integrazioa naturala gerta dadin.

Inguru sozial eta naturaletik, errealtatetik, gero eta gertuago daude ikastetxeak, komunitate lokalaren garapenean gero eta funtsezkoagoak dira. Hasieran, ingurura hurbiltzen gara landa-lana egiten dugulako bertan, edo ikasketa egoera errealetan burutu nahi dugulako. Baina, jarraian, udalerriaren garapenean parte hartuko du ikastetxeak, jasangarritasuna ardatz izanda. Hirugarren urrats gisa, finean, ikastetxea ikerketa-zentro bihurtuko da, komunitate lokalaren jasangarritasun prozesuak eta ekintzak zuzentzera igaroko da. Urratsez urrats, ikasle eta irakasleek ezagutza eta ikuspegia eskuratzen doaz, eta ikasleak herritar aktibo gisa trebatzen dira.

Ikastetxeak prozesu horretan parte hartzen du, mugetatik irteten, beste errealtate batzuekin bat egiten. Kasu batzuetan, ikastetxeak sare desberdinetan parte hartuko du: herritarrenak, erakundeenak, eta, bereziki, ikastetxeen lan-sareak. Beste batzuetan, helburu desberdinak dituzten lan-taldeetan parte hartzen dute irakasleek: curriculumean sakondu, metodologia, teknologia... Herri batzuetan plan edo programa jakin batekin bat egiten du ikastetxeak, eta jarduerak prestatzen dira, ekintza komunak garatu, ikastetxe eta udalerrientzat onuragarri direnak. Honela, eskolarteko foroetan parte hartzen dute udalerrri batean Eskolako Agenda 21 garatzen duten ikastetxeek, eta han iritzia partekatu eta akordioak adostu ondoren, ekarpen horiek eramango dituzte Eskoletako Udal Forora. Ikastetxe bakarra dagoen udalerrietan, aurretiazko lan hori barnean egiten da.

Udalerrriak gero eta aktiboagoak dira Tokiko Agenda 21eko konpromisoak garatzen, eta ikastetxeen presentzia nabarmentzen den ekintza, foro eta kanpainak antolatzen dituzte. Ikastetxeek motibazioa eskaini behar dute, Eskolako Agenda 21aren udal-esparruan parte-hartzeko, eta ordezkaritza bilatu Tokiko Agenda 21en baitako Herritarren Foroetan, tokiko erakundeekin batera parte hartu eta kolaboratzeko proposaturiko jardueretan. Horretarako, irakasle eta ikasleek ongi ezagutu behar dituzte eskolaren ingurua, udalerrria, ingurumenaren balioa, arazoak, historia eta etorkizunerako planak. Plan horietan alor eta estamentu asko egon daitezke, bertakoenetik globalenera doanak.

Alor hauetan aurkez daitezkeen ebidentziaren muina dira, batetik, ikasle eta irakasleen arteko elkarlanaren kontakizuna (diziplinarteko unitateko didaktikoak edo proiektuak, adibidez) eta, bestetik, familiekin burututako elkarlana.

## ELKARLANA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

	Kalitate irizpideak	Balioa
<b>5.1 Elkarlana ikastetxean</b>	68. Talde-lana, auzolana edo kooperazioa estrategia didaktikoa da alor eta ikasgai guztietan.	
	69. Ikasleek aukera dute elkarlanean aritzeko beste batzuekin: pertsonal ez irakaslea, familien estamentuko pertsona nagusiak, beste adin eta ikasgela batzuetako ikasleak.	
	70. Ikastetxeko proiektu desberdinen arteko koordinazio eta integrazioa lortzeko estrategia badago.	
	71. Ikasturtez ikasturte sendotutako lan-taldeak daude ikasle, familia eta irakasleen artean, eta konpromisoa hartua dute Eskolako Agenda 21ekin.	
	72. Eskolako Agenda 21eko eginkizunei atseginez ekiten diete irakasleek, eta efikazak dira haiek garatzean.	
	73. Ikastetxean finkatuta daude jarduera hauek: familiekin elkarlana, lehiaketak, irteerak, jaiak...	

Ebidentziak:

	Kalitate irizpideak	Balioa
<b>5.2 Ikastetxeen arteko elkarlana</b>	74. Erakunde edo ikastetxeen arteko sareekin kolaboratzen du gure ikastetxeak: eskualdeko Eskolako Agenda 21eko koordinazio bilerak, proiektu komunak, mintegiak, komunikazioa, Interneteko plataformak, elkarbizitza...	
	75. Zentroko irakasleek beste ikastetxe batzuetako irakasleekin lan-taldeetan parte hartu eta kolaboratzen dute, esperientziak eta hezkuntza materialak trukatzuz.	

Ebidentziak:

	Kalitate irizpideak	Balioa
<b>5.3 Elkarlana udalerrian</b>	76. Udalerriko jarduera parte-hartzaileekin bat egitera aktiboki motibatzen da hezkuntza komunitatea.	
	77. Tokiko Agenda 21eko Herritarren Foroetara joaten dira ikastetxeko ordezkariak (zuzendaritza, laguntza-taldea edo Ingurumen Batzordea), eta jasangarritasunera zuzendutako heziketa prozesuez informazioa trukatzeko dute.	
	78. Udalerriko taldeekin (GKEak, elkarteak...) proiektuak garatzeko elkarlana sustatzen du ikastetxeak.	
	79. Ikastetxearen ingurua ezagutzen dute irakasle eta ikasleek: balio natural eta sozialak, eta arazoak ere bai.	
	80. Jasangarritasun planak eta dokumentu estrategiko ofizialak erabiltzen dituzte ikasle eta irakasleek: Udalerria, eskualdea, EAE, Estata, Europakoa...	

Ebidentziak:

---



## 6. Curriculuma

Adierazle hau irakasleen ardurapekoa da, beraiek baitira Eskolako Agenda 21eko gidariak ikastetxean. Honekin, irakasleen ikuspuntutik hurbiltzen gara jasangarritasuneko hezkuntzako idealetara. Beste alderdi garrantzitsu bat ere badago hemen: irakasleen paperaren auto-erregulazioa, irakaskuntza prozesuari eta heziketa berrikuntzari begira.

Esparru honetan alderdi eta dimentsio ugari azter daitezke, baina proposatutako irizpideak hiru alorretan bilduko ditugu: bat, irakaskuntza-ikasketa prozesua (ikasle-irakasleak); bigarrena, heziketa berrikuntza (irakasle-taldea), eta hirugarrena, jasangarritasuneko ingurumen hezkuntza.

Jasangarritasuna ez da kontzeptu estankoa eta aldaezina. Alderantziz, gure bizi-modua, gizarte-bizitza, orain eta etorkizuna biltzen dituen paradigma dinamikoa da. Beharrezkoak diru herritar aktibo, sortzaile eta kritikokoak.

Horregatik, esparru askotatik egin dakizkioke ekarpenak jasangarritasuneko hezkuntzari, eta saihestu egin behar dira esparru bakarretik egindakoak (normalean, natur zientzietatik). Esparru bat sar dezakegu proiektuan baldin eta esku artean dugun arazoari ezagutza edo konponbideak gehitzen dizkio. Alderantziz ere, jasangarritasuneko ingurumen hezkuntza aukera da enborreko esparruetarako, ikasleen eta komunitatearen egunero bizitzan eragin zuzena baitute. Jasangarritasuneko hezkuntzak testuinguruak, ikuspegiak eta adibideak eskaintzen ditu irakaskuntza-ikasketa prozesuak berrindartu eta berritzeko bali dezaketenak.

Urrats metodologiko berritzaileen seinale dira honako hauek: ekintzen dibertsifikazioa, material errealarrekin lan egitea (klasikoak diren testuinguru birtual eta denboraz kanpokoak ahaztuz), konponbide posible ezberdinetako arazoak planteatu, autonomia gehiago lortzeko urratsak programatu, hizkuntza informatiboak dibertsifikatu, elkarlanerako aukerak egituratu, denbora, gune eta ikasgela multzokatzeen antolakuntza dibertsifikatu...

Bestalde, irakasleak hausnarketa egin behar du bere jardueraz, ea ikasleen aurrean duen jarrerak proiektuaren helburuekin bat datorren. Konpetentziak lortzeko irakaskuntza prozesuan ere hausnarketa egin behar da: ea ebaluaketak laguntza eta errefortzuak dakartzan hobekuntza behar dutenentzat, lortutako konpetentziak testuinguru zehatzetan praktikan jarriko diren, ea ikasleak autonomo eta arduratsu izateko nahikoa akuilatzen ditugun.

Ikasten ikasi behar da, horixe ere badakar jasangarritasuna ardatz harturik irakasteak. Hausnarketa egiten ikasi, alternatibak proposatzen, horiek praktikan jartzen, ekintzak bideratzen, egoera arazotsuak konpontzen, erabaki egokiak hartzen. Hanka-sartzeak ere prozesuaren parte sentitu behar dira. Era berean, gure komunitateaz kontzientzia hartu behar dugu, beste pertsona batzuekin bizi garela, haiekin demokratikoki erlazionatzen garela; jakitun izanik iritzi desberdintasunak daudela, horiek elkarriketa eta enpatiaren bidez konpontzen ditugu.

Jasangarritasunak herritar aktibo, sortzaile eta kritikoak eskatzen baditu, irakasleek profil horri kasu egin behar diote. Aktibo eta kritiko izan behar dute formazioan, hainbat alorretan: ingurumen hezkuntza, metodologia, emozioak... Berrikuntza proiektuek pisua dute ikastetxean eta, denborarekin, erreferentzia metodologiko bihurtzen, zenbait konturi aurre egiteko. Hau da, ez dira irakaskuntza-jardunean eten bat.

Berrikuntzan urratsa da halaber ikasleek proiektuen ebaluazioan parte hartzea. Haiei dagokie egiteko era berriak garatzea, eta ondorioz, inportantea da ebaluaketan egotea beren ikuspuntua eman dezaten berrikuntzan balekoa denaz edo hobetu daitekeenaz.

Azkenik, ikastetxeak jasangarritasuneko ingurumen hezkuntzarako programa garatzea erabaki badu, azpiegitura egokia behar du hura garatzeko, horren barruan ulertuz formazioa, erantzukizunak eta baloreak partekatzea, eta ikuspegi metodologikoa adostea.

Eskolako Agenda 21 zenbait ikasturtez garatu ondoren, jasangarritasuneko hezkuntzarako proposamen bat finkatu ohi da, ezaugarri hauekin: irakasleen formazioa kontuan hartzen da (banaka, klaustroan edo lantaldeetan egindako ikastaroen bidez), ardurak banatzeko konpromiso kontsekuentea dago, ikasleekin landutako balore eta printzipioak barneratzen ditu irakasleak, curriculumean eragiteko estrategia bat dago (dela zehar-lerroetan, diziplina-artekoa...), eta bere emaitzak berrikuntzarako eredu bihurtzen dira, eragina luzatuz metodologia, didaktika eta baliabide pedagogikoen erabilpena.

## CURRICULUMA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Kalitate irizpideak		Balioa
<b>6.1</b> Irakaskun- tza-ikasketa prozesuak	81. Urterik urte, Eskolako Agenda 21eko proiektu desberdinak maila zehatzetan integratzen dira, oinarrizko hezkuntza bukatzerako ikasleek ingurumen hezkuntzaren konpetentzia pertsonalak, zientifiko-teknologikoak, sozialak eta zibikoak garatu izan ditzaaten.	
	82. Ikasten ikasteko irakasten dugu; pentsatzen, erabakitzen eta ingurumen arazoak konpontzen irakasten dugu.	
	83. Egin eta ekiten irakasten dugu, ideiak ekintza bihurtzen, irudimena erabiltzen, jarduerak garatzen eta ingurumen hobekuntza gaineko ardura hartzen...	
	84. Elkarbizitza irakasten dugu, parte-hartze demokratikoa, gatazka indarkeriarik gabe bideratzen, elkarriketaren bitartez.	
	85. Autonomia, ardura eta jarrera kritikoarekin bizitzen irakasten dugu.	
	86. Testuinguru anitzak erabiltzen dira, non ikasitakoaren funtzioa aplikatu eta ebaluatu daitekeen.	
	87. Ebaluaketaren ondoren, prest daude prozedurak laguntza eta erretortua behar duenarentzat.	
	88. Irakasleak hausnarketa partekatua egiten du irakaskuntza-ikasketa prozesuan duen egiteko eta jarreraz.	

Ebidentziak:

Kalitate irizpideak		Balioa
<b>6.2</b> Heziketa berrikuntza	89. Irakasleen formazioa planean metodologia eta didaktikaren inguruko formazioa ageri dira.	
	90. Irakasleen formazioa planean kontuan hartzen dira alor hauek: garapen emozionala, sentimendu eta jarrerak.	
	91. Ikastetxeak berrikuntza proiektuak, mintegiak, eta abar bermatzen ditu.	
	92. Ikasleekin batera baloratzen dira irakas-ikas jarduerak eta heziketa berrikuntzarako proposamenak, ikerkuntza, kalitate planak eta etengabeko hobekuntza.	
	93. Proiektuetako esperientziak finkatu egiten dira, eta alor eta ikasgai desberdinetarako metodologia eta didaktika eredu bihurtzen dira.	
	94. Liburuak erosten dira, eta aldizkarietara harpidetza egin, ingurumen hezkuntzaz, didaktikaz, eta gaitasunen garatzeaz	

Ebidentziak:

	Kalitate irizpideak	Balioa
<b>6.3 Jasangarritasuneko ingurumen hezkuntza</b>	95. Ikastetxean ingurumen hezkuntzarako formazioa plan bat dago, irakasle guztientzat.	
	96. Eskolako Agenda 21eko koordinatzaileak txandakatzeko plana dago, formazioa eta gaitasunak hedatzen joan daitezen irakasle kopuru egoki batean, Eskolako Agenda 21 ondo garatu dadin.	
	97. Alor, ikasgai edo esparru desberdinetako irakasleek proiektuak edo diziplinarteko sekuentzia didaktikoak prestatzen kolaboratzen dute.	
	98. Irakasle guztiek barneratu dute ingurumena errespetatzeko balorea hedatu behar dela ikasleen artean, eta kontsumo arduratsua eta herritartasun demokratikoa ere bai.	
	99. Zeharkakotasunetik, diziplina arteko ikuspuntutik, proiektu global edo lokalen ikuspegitik, dago jaso ingurumen hezkuntza curriculumean.	
	100. Jasangarritasuneko ingurumen hezkuntzak heziketa berrikuntza bultzatzen du ikastetxean (metodologia, didaktika, baliabide pedagogikoen erabilpena).	

Ebidentziak:

---

# ERANSKINA

**“Eskola  
jasangarritasunerantz”  
aintzatespenaren  
deialdian zabaldutako  
informazioak eta  
iradokizunak**



Eskola  
Iraukorraren  
Ziurtagiria

Certificado  
de Escuela  
Sostenible




# AURKIBIDEA

<b>Aurkibidea</b> .....	71
<b>1. Gonbidapena</b> .....	73
<b>2. Ekimen honen helburua</b> .....	75
<b>3. Kontuan hartzeko alorrak</b> .....	77
<b>4. Adibideak</b> .....	81
1. adibidea .....	81
2. adibidea .....	83
3. adibidea .....	84
<b>5. Eskaera-eredua</b> .....	85





## Gonbidapena



2. Ekimen honen helburua
3. Kontuan hartzeko alorrak
4. Adibideak
5. Eskaera–eredua

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ingurumen hezkuntzak, bereziki 80ko hamarkadatik aurrera, gero eta eragin nabarmenagoa izan du. Hasierako proiektu puntual eta partzialetatik eskolaren beraren funtzionamendu arduratsu eta jasangarrira lortu nahi zituzten proiektu zabalagoetara pasatu zen gero. Horrela hasi ziren lantzen 90ko hamarkadan Eskola Ekologikoak, Ekoeskolak, eta Ekologia Eskolan izeneko programak.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan 2001. urtetik aurrera, Tokiko Agenda 21 programak garatzen dira. Egoera horrek aukera bikaina zabaldu zuen eskoletako eta udalerrietako ingurumen–programak uztartzeko. Modu horretan hasi zen garatzen 2003. urtetik aurrera Euskal Autonomia Erkidegoko Eskolako Agenda 21. Orduetik hona programa nabarmen sendotu eta hedatu da. 2008–2009 ikasturtean 128 udal, 462 ikastetxe, 17.000 irakasle eta 180.000 ikasle inplikaturatu daude.

Izan ere, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasuneko hezkuntzaren zutabe garrantzizkoena bilakatu da Eskolako Agenda 21. Gainera, esperientzia interesgarri hornituta egin duen ibilbideak agerian utzi ditu programak dituen potentzialtasun eta gaitasunak XXI. mendeko hezkuntzak dituen asmo nagusiei erantzuteko.

Beste alde batetik, UNESCOk –Etorkizun Jasangarrirako Hezkuntzako Hamarkadaren markoan (2005–14)- Eskolako Agenda 21 programa Jasangarritasuneko Hezkuntzako praktika ona izendatu du. Nazioarte testuinguru honetan eta esperientzia anitz eta aberats horiek aintzat hartuta programak beste erronka berri bati ekiten dio proposamen honekin.

"Eskola jasangarritasunerantz" aintzatespenarekin Eskolako Agenda 21 programan nabarmentzeko esperientziak dituzten eskolak goraipatu nahi dira. Beraien lana, prozedurak, esperientziak eta, azken finean, eskolaren hezkuntza, partaidetza eta jasangarritasun kalitatea errekonozitu nahi da. 2007–08 ikasturtean esperientzia pilotu bat eraman zen aurrera eta Euskal Autonomia Erkidegoko 25 ikastetxek agiria lortu zuten.

Esperientzia honetatik aurtengo deialdian parte hartzera, galdetegiaren arabera zuen auto-ebaluazioa egiteko eta zuen iritziak eta ideiak ekartzeko gonbidatzen zaituztegu. Ehun galdera errekonozimendurako.

Hemendik, gure planeta jasangarritasunerantz abiatzeko egiten ari zareten lana eskertu nahi dugu.

Gure esku dago!

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

# 2.

## Ekimen honen helburua

1. Gonbidapena
3. Kontuan hartzeko alorrak
4. Adibideak
5. Eskaera-eredua



Eskolako Agenda 21 programa era bikain batean garatzen duten ikastetxeen lana, prozedurak eta esperientzia errekonozitzea.

Interesatuak dauden ikastetxeek ondorengo dokumentazioa bete behar dute eta bere Ingurugelara bidali. Batzorde Ebaluatzaileak dokumentazioa baloratzeko du eta errekonozimendurako proposamen bat dagozkien sailei aurkeztuko die.

Horretarako adierazle sistema bat prestatu da ondoko taula honetan agertzen den moduan:

### ESKOLAKO AGENDA 21EKO HELBURUAK

1. Hezkuntza komunitatean Tokiko zein Planetako ingurumenaren egoeraz sentsibilizazioa eta ezagutza landu, jasangarritasunaren aldeko jarrerak eta konpromisoak eragiteko.	2. Ikastetxe eta udalerriko ingurumen arazoan konplexutasuna identifikatzea, aztertzea, alternatibak proposatzea eta Udal foroetan ezagutaraztea.	3. Ikastetxe eta udalerriko jasangarritasuna lortzeko prozesuak abiatzea.	4. Ikasleei bere ikasketetan, eskolan eta udalerrian bizitzan protagonismoa ematea.	5. Udalerriko edo eskualdeko eskolen arteko laguntza bultzatzea, baita erakunde eta eskolen artekoa ere.	6. Garapen jasangarriak dakartzan eskakizunei erantzun ahal izateko Curriculuma egokitzea, diziplinartekotasuna sustatuz eta metodologia ikertzaileak eta parte hartzaileak erabiliz.
--	---	---	---	--	---

### ADIERAZLEAK

1. Jasangarritasuna	2. Konplexutasuna	3. Prozesua	4. Parte hartzea	5. Elkarlana	6. Curriculuma
---------------------	-------------------	-------------	------------------	--------------	----------------

### AZPIADIERAZLEAK

1.1 Sentsibilizazioa.	2.1 Konplexutasunaren kultura.	3.1 Antolakuntza.	4.1 Ekimenen ezaugarriak.	5.1 Talde-lana ikastetxean.	6.1 Irakaskuntza-ikasketa prozesuak.
1.2 Hausnarketa.	2.2 Etorbizuneko ikuspegia.	3.2 Metodologia.	4.2 Perspectiva y protagonismo de la infancia.	5.2 Ikastetxeen arteko elkarlana.	6.2 Heziketa berrikuntza.
1.3 Baloreak argitzea.	2.3 Alternatibak proposatu.	3.3 Ebaluaketa.	4.3 Hezkuntza komunitatea.	5.3 Elkarlana udalerrian.	6.3 Jasangarritasuneko ingurumen hezkuntza .
1.4 Eskolako giroa.		3.4 Emaitzak.	4.4 Eskolen Udal Foroak.		

## 3.

## Kontuan hartzeko alorrak

1. Gonbidapena
2. Ekimen honen helburua
4. Adibideak
5. Eskaera–eredua

Argi dago agiriak lortzeko dokumentazioa betetzea borondatezkoa dela.

- Nork:
  - Zuzendaritzak, Eskolako Agenda 21eko koordinatzaileak eta, gutxienez irakasle batek.
- Dokumentazioa betez gero irekitzen diren aukerak:
  - “Eskola jasangarria” ziurtagaria lor daiteke.
  - “Eskola Jasangarria” bandera lor daiteke.
  - Eskolako Agenda 21 Sarea<sup>2</sup> parte hartzeko gonbidapena (parte hartzea borondatezkoa da).
  - Eskolako Agenda 21erako proiektu gehiago egiteko laguntza deialdieta-rako merezimenduak irabaztea.
- Prozedura
  - a) Auto–ebaluazioa.
    - Gutxienez bost urtez garatu Eskolako Agenda 21 programa.
    - Dokumentazioa bete:
      - Eskaera osatu.
      - Galdetegia bete eta emandako erantzunetako ebidentziak ziurtatu.

<sup>2</sup> EA21 Sarearen helburua da sistema honen bidez ziurtatutako ikastetxeek sare bat izatea, esperientziak trukatzeko, ikerketa garatzeko eta hezkuntza kalitatea hobetzeko.

- Dokumentazioa osatzeko 2009.eko apirilak 3ra arte epea dago. Epe horren barruan bere jarduna egokitu ahal izango du ikastetxeak emaitza hobetzeko.
  - Epe barruan korreo zertifikatua dela medio dokumentazioa bidali dagoen Ingurugelari eta baita bidali kopia bat korreo elektronikoz.
- b) Auditoria.
- EA21eko Ebaluaketa Batzordeak<sup>3</sup> ikastetxea bisitatuko du erantzunetako batzuk ziurtatzeko.
- c) Aintzatespena.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak "Eskola jasangarria" agiriak emango dituzte behar diren kasuetan.
  - Aintzatespena hiru ikasturterako da. Agiria berritzeko berriz ekin beharko zaio prozesu honi.
- Nola bete galdetegia:

Kalitate irizpideak sei talde handitan sailkatu dira, EA21eko helburuen argitan, 1. taulak adierazten duen bezala. Helburu bakoitzari adierazle nagusi bat dagokio: *jasangarritasuna, konplexutasuna, prozesua, parte hartzea, elkarlana* eta *curriculum*. Gaia aurkezteko eta kalitate irizpideen ulermena errazteko asmoz adierazle bakoitzak sarrera bat dauka.

Adierazle hauen azpian hiruzpalau azpi-adierazle daude, zeregina ondo kokatzeko. Adibidez, *jasangarritasuna* adierazlearen barruan, azpiadierazle hauek ditugu: *sentsibilizazioa, hausnarketa, baloreak argitzea* eta *eskolako giroa*.

Kalitate irizpide guztietan eman behar da puntuaketa, eta azpi-adierazle multzoen amaieran tokia dago puntuaketa hori arrazoitzeko ebidentzien bitartez.

---

<sup>3</sup> EA21eko Ebaluaketa Batzordea osatzen dute Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak, Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak, Ingurugeletako zuzendaritzek, eta ingurumen hezkuntzan adituek (Udalsarea21, Unesco Etxea, Unesco Katedra...). Bere egitekoa da ikastetxeen dokumentazioa eta esperientziak ebaluatzea, eta proposamenak egitea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari "Eskola jasangarria" agiriak emateko.

- Puntuaketa:

Ehun kalitate irizpide daude. 1etik 10erako puntuak eman bakoitzean, zenbaki osoetan.

Galdetegiari erantzuteko jarraian dagoen taulako erreferentziatzko deskribatzaileak erabili behar dira:

	1-2	3-4	5-6	7-8	9-10
<b>Orokortzea</b>	Garrantzia aitortzen zaio baina aplikatzeko zailtasun handiak daude	Garrantzia aitortzen zaio, eta talde txiki batean, denbora mugatuan, aplikatzen da	Talde handi batean denbora mugatuan aplikatzen da, edo alderantziz	Talde handi batek denboraz luzez parte hartzen du	Estamentu osora hedatu da, denbora luzez
<b>Antolakuntza eta funtzionamendua</b>	Antolakuntzako ebidentziaren bat bada	Egituraketa eta sistematizazio ahaleginetan gaude, horiek finkatzekotan	Antolakuntzarako egitura badago	Beharrezko egitura beste batzuekin harreman zuzenean dago, eta bere funtzionamendua ondo ezarria	Egituren molde eta funtzionamendua ebaluazio etengabea dago, emaitzak integrazteko prest
<b>Bultzatze eta jarraipena</b>	Koordinatzaileak bultzatzen du	Koordinatzaileak eta laguntza taldeak bultzatzen dute	Zuzendaritzak abiatu du prozesua	Zuzendaritzak abiatu du prozesua, eta jarraipena egiten du	Zuzendaritza taldeak funtzionamendu autonomo bat bultzatzen du, arduren banaketa antolatua erekin eta kontrol sistematikoarekin
<b>Jarraikotasuna</b>	Aurretiazko esperientzia batzuk badira	Prozesua abiatzen ari da	Esperientzia berria da ikastetxe honetan	Ikastetxearekin batera ari da umotzen prozesua	Esperientzia errotoa dago ikastetxean
<b>Ebaluaketaren erabilpena</b>	Ebaluaketari garrantzia aitortzen zaio	Ebaluatze ahalegina egiten da	Helburuei zuzendutako adierazleren bat badago. Aldaketak aurreko esperientzietan oinarritzen dira	Adierazleak dira ebaluaketaren oinarri. Adierazle dokumentuetan oinarritzen dira hobekuntzak	Helburuei dagozkien adierazleak sistematikoki erabiltzen dira eta emaitzak helburu berriak zehazteko erabiltzen

Eskala mailakatuak eskaintzen ditu taulak, item bakoitzaren balioa aukeratzeko. Honela inplikatuaren kopuruei eta eskainitako denborei arreta eskaintzen zaie, eta baita antolakuntza eta funtzionamenduari, bultzada eta jarraipenari, jarraikortasunari eta ikastetxean presentzia izateari, eta ebaluaketa erabiltzeari.

- **Ebidentzia:**

Puntuaketaz gain, balioa zein ebidentziak ziurtatzen duen galdetzen dugu, non aurki daitekeen. Hau da, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuko zein printzipio, helburu edo programazioko eduki, zein akordio dokumentatu... Noski, EA21 proiektuaren berezko dokumentazioan ere (txosten, fitxa...) akordioak aurki daitezke, antolakuntza ohiturak, praktika metodologikoak eta abar, eta horiek emandako puntuak arrazoitzeko erabil daitezke. Ohikoena, ebidentziak honako dokumentuetan aurkitzea da: Ikastetxeko Curriculum Proiektua, Urteko Plangintza, programazioak, aktak, erregistroa, EA21eko txostena...

Kalitate irizpide bakoitzean atal bat dago zehazteko zeintzuk diren eta non dauden ebidentziak. Ebidentzia orokor bat eman daiteke, edota zenbait ebidentzia partikular.

- **Gogoeta gehigarriak:**

Aurreko guztiaz gain, gogoeta gehigarriak egiteko lekua dago. Oso litekeena da galdetegiak ez bere gain hartzea ikastetxearen jardun osoa, eta horregatik, galdetegian jasotzen ez diren gaiak aipa daitezke, gehienez bost. EA21eko Ebaluaketa Batzordeari dagokio bost gai horien puntuak ematea. Gehienez 50 puntura arte gehitu diezaioke Batzordeak aurreko puntuaketari.



## Adibideak

## 4

1. Gonbidapena
2. Ekimen honen helburua
3. Kontuan hartzeko alorrak
5. Eskaera-eredua

## 1. ADIBIDEA

**11. Kalitate irizpidea.** Landu egiten da, bai egunerokotasunean zein asanblada, gatazka eta abarretan, ikasleak beren kasa pentsatzeko gai izan daitezen, arazoan gaineko informazio, iritzi eta ikuspuntuez kritikotiko izan daitezen.

Ikastetxearen hausnarketak dio: *"Duela 7 ikasturtetik akordio metodologikoa dago Ikastetxeko Curriculum Proiektuan jasoa, interesguneen edo proiektuen inguruan lan egingo dugula. Hortaz, ez dugu bakarrik testuliburu erabiltzen, eta zenbait dokumentazio iturriren artean Internet eta egunkariak darabilz-kigu. Eztabaida eta asanbladak programatuta daude, ingurumen edo gizarte gai eta arazoak tratatzeko. Irakasleek urtero baloratzen dute proposamen didaktikoa, eta hura hobetu eta egokitzeko neurriak iradokitzen dituzte. Bestalde, Elkarbizitza Plana dago eta ikasleen beharrei arreta eskaintzen zaie, neurri zuzentzaileak proposatzeko. Neurri zuzentzaileen jarraipenean ikasleak parte hartzen hasi dira, eta horretan gehiago egin beharra dago".*

Hausnarketa honen ondoren, 2. taulan, Orokortze alorrean zera dugu *"Estamentu osora (kasu honetan, irakasleak lirateke) hedatu da, denbora luzez 9-10". Abiapuntu eta jarraipen alorrean dugu: "Zuzendaritza taldeak funtzionamendu autonomo bat bultzatzen du (kasu honetan, irakasleena), arduren banaketa antolatuaekin eta kontrol sistematikoarekin 9-10". Era berean, Jarraikotasuna ere azter dezakegu: "Esperientzia errotua dago ikastetxean 9-10". Hiru deskribatzaile horien argitan, 9 puntuko balioa eman dezakegu.*

Beraz, honela beteko dugu galdetegia:

	11. Landu egiten da, bai egunerokotasunean zein asanblada, gatazka eta abarretan, ikasleak beren kasa pentsatzeko gai izan daitezen, arazoan gaineko informazio, iritzi eta ikuspuntutik kritiko izan daitezen.	9
--	---	---

**Ebidentzia**

Ikastetxeko Curriculum Proiektuan jasoa dago printzipio metodologiko hau: *"Interesguneen edo proiektuen inguruan landuko dira proposamen didaktikoak"*. Ikasleek komunikazio eta informazio-rako tresnak darabiltzate: egunkariak, liburuak, Internet. Ikasgelan testu desberdinak erabiltzen dira. Eztabaiden ondoren, elkarbizitza edo kudeaketa erabakiak hartzen dira eta Ikasgelako egunerokoan jasotzen dira.

## 2. ADIBIDEA

**58. Kalitate irizpidea.** Ikasleen ordezkariak, edo Eskolako Agenda 21eko boluntario taldeek, gune eta denborak dituzte eskura, beren kasa elkartzeko.

Ikastetxearen hausnarketak dio: *“Duela 5 ikasturtetik, ikasleak era autonomoan antolatzen dira Ingurumen Batzordeko ordezkariak biltzeko, lan eta jarraipen batzordeetan; eta horietako edukiak idatziz jasotzen dira. Zeregin hauetarako, aukera dute bilera gelak eta denbora eskatzeko; hori Ikasketa Buruarekin negoziatzen da aldi bakoitzean, eta prozedura jasoa dago Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudian, Eskola Kontseiluan adostu bezala. Ikasturtea amaitzean partaidetzarako mekanismo hauen balorazioa egiten du zuzendaritzak, eta Eskola Kontseiluari jakinarazten dio, behar badira, hobekuntzak proposatuz”.*

Taulara itzuliz, zera dugu *Bultzada eta Jarraipenean*: *“Zuzendaritza taldeak funtzionamendu autonomo bat bultzatzen du (kasu honetan, ikasleak), arduren banaketa antolatuarekin eta kontrol sistematikoarekin 9–10”.* Era berean, *Orokortze* atalean: *“Estamentu osora (kasu honetan, ikasleak) hedatu da, denbora luzez 9–10”.* Gainera, *Antolakuntza eta Funtzionamenduan* hau ere topatuko dugu: *“Egituren molde eta funtzionamendua ebaluazio etengabea dago, emaitzak integratzeko prest 9–10”.*

Baina nola ezin dugun ebaluazioa (*Ebaluaketaren erabilpena*) adierazle erabilpen sistematikoarekin dokumentatu, azken emaitza 9 izan daiteke.

	58. Ikasleen ordezkariak, edo Eskolako Agenda 21eko boluntario taldeek, gune eta denborak dituzte eskura, beren kasa elkartzeko.	9
--	--	---

### Ebidentzia

Eskola Kontseiluaren akordio bat bada, Araudian jasoa, aukera ematen diena Ingurumen Batzordean eta batzorde batzuetan dauden ikasleei informazio eta lan bilerak deitzeko, denbora eta gune arazoizkoak erabiliz, zeinak kasuz kasu aztertuko dira. Ikasleen ordezkariak aukera hau erabili egiten dute, eta deialdiak egiten dituztenean, eskaera eta saioaren erregistro-kopia Ikasketa Buruaren esku geratzen dira.

### 3. ADIBIDEA

#### 82. Kalitate irizpidea. Ikasten ikasteko irakasten dugu pentsatzen, erabakitzen eta ingurumen arazoak konpontzen irakasten dugu.

Honen inguruan hausnarketa hau egin du ikastetxeak: *"Soilik Natur-zientzien ikasgaietan tratatzen dira modu antolatuan ingurumen arazoak. Klaustroak eta zuzendaritzak oso interesgarritzat jotzen dute kompetentzien garapenerako, baina ezin izan dira beste esparru batzuk inplikatu. Tutoretzan ikasketa-teknikak lantzen direla ziurtatzen da. Nolanahi ere, irakasle guztiek hartzen dute parte Eskolako Agenda 21 proiektuko jarduera zehatzetan, hala nola Agenda 21aren egunean, edo Ingurumenaren Egunean".*

Taulako erreferentzien arabera, Orokortze atalean, deskribapena 3. mailari dagokio ondoen: *"Talde handi batean denbora mugatuan aplikatzen da, edo alderantziz 5-6". Antolakuntza eta funtzionamenduari begiratu, esan dezakegu: "Egituraketa eta sistematizazio ahalegin egiten dira eta horiek finkatzeko daude. 3-4".* Balorazio hauetatik ondoriozta dezakegu 4 puntu ematea.

	82. Ikasten ikasteko irakasten dugu; pentsatzen, erabakitzen eta ingurumen arazoak konpontzen irakasten dugu.	4
--	---	---

#### Ebidentzia

Alor honi buruzko helburu eta edukiak badaude Natur Zientzietako programazioan, eta Tutoretzako Ekintza Planean. Eskolako Agenda 21eko txostenean jasoa dago irakasleen lan bateratua erakusketan, argazki bilduman, eta Agenda 21 Egunean.

Eskaera-eredua

5.

1. Gonbidapena
2. Ekimen honen helburua
3. Kontuan hartzeko alorrak
4. Adibideak

“Eskola jasangarritasunerantz /  
Escuela hacia la sostenibilidad”

ESP. ZK./Nº EXP.....

**Ikastetxearen izena** / Nombre del centro  
.....

**Publikoa edo itunpeko pribatua** / Público o privado concertado  
.....

**Hezkuntzako kodea** / Código de educación  
.....

**Helbidea** / Dirección  
.....

Tfnoa .....

Faxa .....

E-mail.....

Herria/Localidad:.....

Posta kodea/Código postal: .....

Lurraldea/Territorio: .....

IFK/C.I.F: .....

Goian aipatutako ikastetxeak:

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailek argitaratutako “Eskola jasangarritasunerantz” errekonozimendurako deialdian parte hartzea eskatzen du jarraian zehaztutako dokumentuekin, eta bertako datuak zehatzak direla egiaztatzen du.
- Erakunde onuradunak zin dagoela diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko galarazten duen debekuren baten edo administrazio-zehapen edota zehapen penalen baten, ezta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Amaierako Seigarren Xedapenean ezarritakoe-tan ere.

El Centro Escolar arriba mencionado:

- Solicita participar en la convocatoria de reconocimiento “Escuela hacia la sostenibilidad” de los Departamentos de Educación, Universidades e Investigación y Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, con la documentación detallada a continuación, y hace constar la exactitud de los datos reseñados.
- Declara no encontrarse incurso en ninguna prohibición o en sanción administrativa o penal que conlleve la imposibilidad de obtención de subvención o ayuda pública, incluida la establecida en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Horretarako, eta ordezkari gisa, ikastetxeko zuzendariak eskabide hau sinatzen du.

.....n, 20.....ko .....aren .....(e)(a)n

Para lo que en su representación firma la presente solicitud la directora o el director del centro.

En....., a ..... de..... de 20.....

Ikastetxeko zuzendariaren izenpea eta zigilua  
Firma del director / directora del centro y sello

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila  
Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, eskatzaileei jakinarazten zaie ematen dituzten datuak fitxategi batean bilduko direla. Fitxategi horren helburua da diru-laguntzen deialdi hau eta gaiarekin lotutako beste edozein administrazio-espeditze ere kudeatzea. Fitxategiaren arduraduna Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza da. Datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta aurkatzeko eskubideak sail bereko Zerbitzuen Zuzendaritzan baliatu ahal izango dira. Horretarako, helbide honetara jo beharko da: Donostia kalea, 1 • 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

Departamento de Educación, Universidades e Investigación  
Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca

De conformidad con la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, se informa a los y las solicitantes que los datos que faciliten serán incluidos en un fichero con la finalidad de gestionar la presente convocatoria de subvenciones y cualquier otro expediente administrativo relacionado con la materia. El responsable de este fichero es la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición se podrán ejercer ante la Dirección de Servicios del propio Departamento, dirigiéndose para ello a la calle Donostia-San Sebastián, 1 • 01010 de Vitoria-Gasteiz (Araba).







## BIBLIOGRAFIA

- Asociación de Educación Ambiental y del Consumidor (ADEAC) (2003). *Cuestionario de evaluación de Ecoescuelas 2003*. ADEAC. Madrid.
- AUZMENDI, J. et al. (2003). *Ingurumen-hezkuntzaren integrazioa EAeko Derrigorezko Lehen eta Bigarren Hezkuntzan: Diagnostikoa*. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Eusko Jaurlaritzak. Vitoria-Gasteiz.
- BENITO, J.; GUTIÉRREZ, J. M.; HERNÁNDEZ, R.; eta MARAÑÓN, J. (2008). *Eskolako Agenda 21en Gida. Jasangarritasunerako hezi. Educar para la sostenibilidad*. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Eusko Jaurlaritzak. Vitoria-Gasteiz.
- BENITO, J.; HERNÁNDEZ, R.; eta MARAÑÓN, J. (2007). *40 jardunbide Eskolako Agenda 21en*. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Eusko Jaurlaritzak. Vitoria-Gasteiz.
- BENNETT, D. (1993). *Evaluación de un programa de educación ambiental*. Los Libros de la Catarata. Bilbo.
- BREITING, S.; MAYER, M. eta MOGENSEN, F. (2005): *Quality Criteria for ESD-Schools. SEED-School Development through environmental education*, ENSI-Environment and school initiatives y Austrian Federal Ministry of Education, Science and Culture. Viena, Austria.
- CALVO, S. eta GUTIÉRREZ, J. (2007). *El espejismo de la educación ambiental*. Morata Argitaletxea. Madrid.
- CANTERA, A. et al. (2006). *Ingurumen kalitateko eskolarako proiektua*. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Eusko Jaurlaritzak. Vitoria-Gasteiz.
- Centro de Recursos Ambientales de Navarra-CRANA (2006). *Calidad en educación ambiental Una propuesta de trabajo para mejorar la calidad de los programas y actividades de educación ambiental en Navarra*. Fondo Social Europeo, Fundación Biodiversidad eta Fundación Centro de Recursos Ambientales de Navarra. Iruña-Pamplona.
- COLL, C. et al. (1997). *El constructivismo en el aula*. Graó Argitaletxea. Barcelona.

- Euskal Autonomi Erkidegoko Ingurugiro Heziketaren I jardunaldiak.* (1988). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila. Eusko Jaurlaritzza. Vitoria–Gasteiz.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiro heziketaren II jardunaldiak: Ondorioak.* (1992). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Saila. Eusko Jaurlaritzza. Vitoria–Gasteiz.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen hezkuntzako Euskadiko III Jardunaldiak. Jasangarritasuna: bizitzeko hezi.* (2003). CD–Rom. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Eusko Jaurlaritzza. Vitoria–Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritzza (2006). *Iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisorantz EAEn.* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Eusko Jaurlaritzza. Vitoria–Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritzza (2008). *Hezkuntza Berriztatze Lehentasuneko Lerroak 2003–2006 eta 2007–2010.* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzza. Vitoria–Gasteiz.
- FERNÁNDEZ OSTOLAZA, A. (1996). *Eskola Ekoauditoria.* Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila. Eusko Jaurlaritzza. Vitoria–Gasteiz.
- FERNÁNDEZ OSTOLAZA, A. (2002). *Jasangarritasunerako hezi. Eskolako Agenda 21: eskolarentzako gida.* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Vitoria–Gasteiz.
- GARCÍA, J. E. (2004). *Educación Ambiental, Constructivismo y Complejidad.* Diada Argitaletxea. Sevilla.
- GUTIÉRREZ, J. M.; BENITO J. eta HERNÁNDEZ, R. (2007). *Eskolako Agenda 21 programaren ebaluazioa 2003–2006.* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Vitoria–Gasteiz.
- GUTIÉRREZ, J. M.; BENITO J. eta HERNÁNDEZ, R. (2007). Evaluación del programa Agenda 21 Escolar de Euskadi. *Carpeta del Ceneam*, iraila. Madril.
- GUTIÉRREZ, J.M. (2007). Agenda 21 Escolar: educación ambiental de enfoque constructivista. *Carpeta del Ceneam*, otsaila. Madril.
- GUTIÉRREZ, J.M. (2008). Programa 21 e Educación Ambiental: raíces da Axenda 21 escolar. En *AmbientalMente sustentable*, Vol. 1, nº 5. Liáns–Oleiros, A Coruña.

- Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea (UNESCO) (1976). *La carta de Belgrado: un marco global para la educación ambiental*. París.
- Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea (UNESCO) (1997). *La educación encierra un tesoro: Informe a la UNESCO de la Comisión Internacional sobre la educación para el siglo XXI, presidida por Jacques Delors*. París.
- IMBERNÓN, F. (coord.) (1999). *La educación en el siglo XXI. Los retos del futuro inmediato*. Graó. Bartzelona.
- IHITZA: *Impulsando la Agenda 21 Escolar*. Ingurugelaren aldiroko publikazioa. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, eta Ingurumen, Lurralde Plan-gintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza. Vitoria–Gasteiz.
- Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa (IHOBE) (2002). *Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen–Estrategia (2002–2020)*. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Eusko Jaurlaritza. Vitoria–Gasteiz
- LEFF, E. (2006). Complejidad, racionalidad ambiental y diálogo de saberes. *Carpeta del Ceneam*, urtarrila. Madril.
- MARTÍNEZ HUERTA, J. (1996). *Ingurugiro heziketa Euskadin. Egoera eta aurreikuspenak*. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila. Eusko Jaurlaritza. Vitoria–Gasteiz.
- MAYER, M. (2006). Criterios de calidad e indicadores en educación ambiental. In Departamento de Medio Ambiente, Gobierno de Aragón, y Colectivo de Educación Ambiental S.L. *La Educación Ambiental en Aragón en los albores del siglo XXI*. Zaragoza.
- MEIRA, P. (2006). Elogio de la educación ambiental. In *Trayectorias: Revista de Ciencias Sociales de la Universidad Autónoma de Nuevo León*, VIII urtea, 20–21 zkia, urtarrila–abuztua. León, Mexico.
- HERRI ADMINISTRAZIOEN MINISTERIOA (2006). *Guía de evaluación, Modelo EVAM*. Herri Administrazioen Ministerioa. Madril.
- NAVARRO, M. et al (1990). *Catálogo de criterios para la evaluación de programas de Educación Ambiental*. Centro Municipal de Investigación y Dinamización Educativa, Área de Cultura y Educación. Sevillako Udala. Sevilla.
- NAZIO BATUAK (NB) (2005). *Estrategia de la CEPE de educación para el desarrollo sostenible*. Nazio Batuen Giza eta Ekonomia Batzordeko Europarako Komisio Ekonomikoa (EKE). CEP/AC.13/2005/3/Rev.1.

- SALOMONE, M. (2006). *Educational Paths towards Sustainability. Proceedings of 3rd World Environmental Education Congress (3rd WEEC)*. Scholé Futuro y WEEC. Torino, Italia.
- SUKARRIETA TALDEA (1998). *Aurretizko ideiak eta Ingurugiro heziketa*. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Fundación Bilbao Bizkaia Kutxa. Bilbo.
- SUKARRIETA TALDEA (2008). *Hezkuntza programa eta ebaluazio hezitzaile eredu*. Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Bilbao Bizkaia Kutxa. Bilbo.
- TILBURY, D. (1998). *Investigación sobre evaluación en educación ambiental*. Ingurumen Hezkuntzako III Jardunaldietan aurkeztutako txostena. Iruña. 2004ko azaroaren 24an hemendik aterata: [http://www.mma.es/portal/secciones/formacion\\_educacion/recursos/rec\\_documentos/evaluacion1.htm](http://www.mma.es/portal/secciones/formacion_educacion/recursos/rec_documentos/evaluacion1.htm)
- TILBURY, D. (2000). El "cómo" de la educación ambiental. In *Ihiza*, 3 zkia, udazkena. Vitoria–Gasteiz.
- WEISSMANN, H. eta LLABRÉS A. (2001). *Guía para hacer la Agenda 21 Escolar*. Ingurumen Ministerioa. Madril.

## AKRONIMOAK

- E21A: Eskolako Agenda 21 programa.
- EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa.
- IH: Ingurumen hezkuntza.
- JH: Jasangarritasunerako hezkuntza.
- DBH: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- IHOBE: Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.
- HLO: Hezkuntzako Lege Organikoa.
- UN: Nazio Batuak.
- ELGA: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea.
- GKE: Gobernu Kanpoko Erakundea.
- IIHP: Euskal Autonomia Erkidegoren Jasangarritasuneko Ingurumen Hezkuntzako Plana.
- AJA: Antolakuntza eta Jarduera Arautegia.
- UNESCO: Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea.

